

Herririk Herri | 3

Durango Udalari Abasoloren indultuaren kontra egiteko eskatu diote



Berbaz | 8

Durangaldeko hiru gazteren esperientzia Finlandian, enpresa arloan murgiltzeko

Kultura | 11

Otsailaren 3an eta 4an estreinatuko duen obra aurkeztu du La Papak

DURANGO | 2

Eztabaida piztu du Kontu Epaitegiaren txostenak

2009ko udal kontuen fiskalizazioaren berri eman du Kontu Epaitegiak asteen

EAJk "pozarren" hartu du ebazpena. Aralar eta Bilduk kritika ugari egin dizkiote EAJri



Trena 2012an lurpetik joateko eskatu du EAJk

Durango• Trena lurperatzeko obren atzerapena salatu dute asteen EAJko Juan Antonio Arieta-Araunabeña legebiltzarkideak, Andoni Ortuzar BBBko presidentek eta Aitziber Irigoras Durango alkateak. Azaldu

dutenez, ez-legezko proposamena aurkeztu dute Legebiltzarrean, "urtea amaitu aurretik trenbidea lurperatzea posible delako". Ortuzarrek kritikatu du Garraio Sailak "zigor politikoa" darabilela Bizkaian". | 2

DURANGO | 3

Eneko Egibar kaleratu egin dute Erraldetik

Teknikari bat plangintza osatzen dabil araudia bete eta hiltegia "ahalik eta arinen" zabaldu dezaten.



KIROLA | 17

Urte bi eta gero berriz antolatuko dute 'Balcón de Bizkaia' rallya



Izurtza | 7

Etxebizitza beharri buruzko galdeketa martxan da

Durango | 3

Gazteen lokalen araudia onartu dute Hirigintza Batzordean

Berriz | 6

Aukera Azoka antolatu dute, merkataritza bultzatu guran

Iurreta | 4

BBK-ko asanbladan parte hartzea erabaki du udalak

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Mundu bat nahi beste aukera

ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate OTSAILAK 4 larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea
Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza OTSAILAK 2 osteguna, 18:00
- Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

2009ko kontuen fiskalizazioak eztabaida sortu du

EAJK "pozarren" hartu du txostena; Aralarrek eta Bilduk gogor kritikatu dute gobernu taldea

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2009ko aurrekontuen gainean egindako auditoriaren emaitza ezagutzera emateak hautsak harrotu ditu Durangoko Udalean. EAJK "pozarren" hartu ditu txosten horren emaitzak. Prentsa oharrean azaldu dutenez, "epaitegi honen iritziz, Durangoko Udalak 2009. urtean bete egin du bere egoera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen arautegia". Hala ere, "hanka-sartze administratiboren bat gertatu zitekeela" aitortu dute.

Igerilekuen eta liburutegiaren proiektuak garestitu izana nabarmendu du epaitegiak

Epaitegiak igoerak sumatu ditu Landakoko igerilekuen proiektuan, %32ko igoeragaz, eta Udal Liburutegian, %37ko garestzeagaz. EAJk igoerakosoko bilkurak onartu zituela argudiatu du.

Elkarteen diru-laguntzei dagokionez, aurrekontuluzapena zela-eta 500.000 euroko diru-laguntzak mantendu zituztela azaldu du EAJK, "elkarteei arazo ekonomikorik ez sortzeko".

Bestalde, udaleko langileen kontratazio batzuk hautaketa prozesu barik eta publizitaterik egin barik gauzatu direla ere azaltzen du Epaitegiak.

Aralar eta Bilduren kritikak "Aurrekontuak garestitzea Durangon egin diren obra garrantzitsu guztietan gertatu dela salatu du Aralarrek; liburutegia eta igerilekuez gainera, Hizkuntza Eskolaren proiektua %30 garestitu zela gogoratu du. Obretako kontratu baten ere ez dela legeak eskatzen duen derrigorrezko proiektuen ikuskapena egiten azaldu du Dani Maeztu zinegotziak. Kontratazioen arloan, Durangoko Udalak "gaitz kronikoa" duela eta horrek udal ekonomia nabarmen kaltetzen duela agerian gelditu da", gaine-



Herri-kontuen Euskal Epaitegiak hainbat ondorio eman ditu jakitera.

ratu duenez. Txostenak urte bat aztertzen badu ere, irregularitasunak "sistematikoak" direla salatu du Maeztu zinegotziak, eta "ardura publikoa izateak exijitzen duen erantzunkizuna" hartzeko eskatu dio EAJri.

Proiektuak garestitzeari buruz Bilduk kritikatu duenez, ikuskapen barik proiektuek ez daukate ez-lako zehaztapenik eta, "durangar guztion artean ordaindu beharre-

Bilduk eta Aralarrek proiektuek ikuskapena behar dutela diote, halakorik ez egin izana salatuz

dako prentsaurrekoan, Aitziber Irigoras alkateak, Andoni Ortuzar BBBko buru eta legebiltzarkideak eta Juan Antonio Arieta-Araunabeña EAJko legebiltzarkideak.

Trenbidea amaitzeko "diru arazorik ez" dagoela-eta obrei lehenetsuna emateko eskaria egin dute EAJko kideek. Arieta-Araunabeñak salatu duenez, azken urteotan trenbidearen obran "aurreikusitako partidak baino gutxiago exekutatu da". Datuak eman ditu: 2010ean aurreikusitakoaren % 54 exekutatu zen, eta 2011n % 55.

"Gezurrez eta atzerapenez betetako historia" da trenbidearen lurperatzea, Andoni Ortuzarren berbetan. Ortuzarrek kritikatu du Garraio Sailak "zigor politika" darabilela "Bizkaian, eta, batez ere,

"2010ean eta 2011n, obrarako aurreikusitako partidak baino gutxiago exekutatu da"

Andoni Ortuzarrek salatu du Garraio Sailak "zigor politika" darabilela proiektu honekiko

ko prezioa" dela adierazi dute. "Gardentasun falta" ere kritikatu dute, oposizioko alderdiei epaitegiak sei hilean egin duen lana "ezkutatu" egin dietela azalduz. Diru-laguntzak batzuei bai eta beste batzuei ez emateko irizpideak zeintzuk diren ere galdetzen dute. Gobernu taldeak *hanka-sartze administratibo* definizioa erabiltzea "zinismo erakustaldia" dela ere salatu du Bilduk. ■ J.G.

Durangon, trenbidearen lurperatzearen obragaz". Legebiltzarrean eskatu dutena "aurrekontuetan esandakoa betetzea baino ez" dela nabarmendu gura izan du Andoni Ortuzarrek.

Udalak ez dauka Garraio Sailagaz hartu-eman zuzenik: "Albisteak komunikabideen bidez heltzen zaizkigu"

Udalak berririk ez

Aitziber Irigoras alkateak adierazi duenez, Durangoko Udalakez dauka Garraio Sailagaz hartu-eman zuzenik: "Albisteak komunikabideen bidez heltzen zaizkigu". Horrela jardunda durangarrei "mespretxu hutsa" azaltzen dietela salatu du Irigoras: "Ahaztu egiten dira herritarrak direla egoeraren biktima, eta ez dute atzerapenen arazoak azaltzerik lortu". Obren gaineko informazioa eskatzeaz gainera, trenbideagaz egon dako arazoan gainera berba egin du alkateak: "Hesiekin egondako arazoek arriskuak sortzen dituzte, eta kontu handiz zaindu beharreko arazoak dira". ■ A.U.

Trenbidea 2012an lurperatzeko eskatu du EAJK Legebiltzarrean

EAJK obren atzerapena salatu eta ez-legezko proposamena aurkeztu du

Urtea amaitu aurretik trenbidea lurperatzeko lanak amaitzea "teknikoki posible" dela nabarmendu dute asteon EAJko ordezkariak, eta Eusko Legebiltzarrean ez-legez-

"Diru arazorik ez" dagoela esanez, obrei lehenetsuna ematea eskatu du EAJK

ko proposamena aurkeztu dutela jakinarazi dute, lanak aurten amaitzea eskatzeko. Obraren atzerapena eta haren gaineko "informazio falta" salatu dute Durangon egin-



Trenbidearen segurtasun falta nabarmendu dute EAJko ordezkariak.



Eneko Egibar Erraldeko gerentea kaleratu egin dute

Teknikari bat plangintza osatzen dabil "ahalik arinen zabaldu ahal izateko"

Erralde hiltegiako gerente Eneko Egibarrek azaldu duenez, gerente eta albaitari moduan bere funtzioa "goitik behera" bete du Erralde hiltegian. Egoeraren inguruan ez duela "ezer ulertzen" aitortu du. Proiektua "bideragarri" egin duela adierazi du gerente ohiak. "Ekonomikoki parra egin dugu. 2011 urtean 9.504 abelburu hil ditugu, eta Bizkaiko Biltotsa komertzializatu dugu". Osasun Sailaren txostenetan argi gertatzen da araudiaren arabera hiltegiak egitura akatsak dituela, gogorazi duenez. Teknikari alde-tik Euskal Herriko albaitari onenak izan dituztela aholkulari zehaztu du. "Elikadura subiranotasunaren alde lan egin dut", gaineratu du.

Gauzak horrela, Osasun Sailan aurkezteko plangintza osatzen dihardu Erraldek. Urtarrilaren 14an produkzioa eten zuten Osasun Sailaren aginduz. Harrezkero Eusko Jaurlaritzagaz egindako batzarrean araudira egokitzeko plangintza aurkezteko konpromisoa hartu dute, hiltegia berriro zabaltzeko. "Ahal den eperik laburrenean zabaldu gura dugu, eta horretarako behar egiteko modu berria aztertzen gabilta", dio Mikel

Ansotegik azaldu duenez, "kaleratzeak ez dauka teknikari berriarekin zerikusirik"

Ansotegi Erraldeko presidentea. Osasun Sailak gaia txostena esku artean duenean aztertuko duela erantzun du.

Plangintza osatzeko teknikari berria kontratatu dute. Ansotegi gerentearen kaleratzearen inguruan galdetuta, "Erralde barruko" gaia dela eta teknikari barriagaz ez duela zerikusirik argitu du. "Teknikaria kontratatzerakoan kanpoko pertsona bat hartu gura izan dugu, Erraldegaz loturirik bakoa, aholkularitza ahalik eta objektiboena egiteko".

Bitartean, behargin batzuek mantenimenduan dihardute, eta besteak oporretan daude. "Abokatuekin gabilta langileen egoeraz zelan kudeatu zehazten". ■ J.G.



Urtarrilaren 14tik ez dago produkzioz Erralde hiltegian.

Udalak Abasoloren indultuaren kontra egiteko eskatu dute

Plataforma Feministak eta PSE-EEK gogor salatu dute sexu-erasoen gaineko zigorra arindu izana

Sexu-abusuengatik zigortuta zegoen Paul Abasolori indultu partziala eman izanak zeresan handia eman du Durangoko eragileen artean. Udaleko Berdintasun Batzordean gaia lantzeko eskatu dute Durangoko Plataforma Feministak eta PSE-EEK, eta sozialistek gaineratu dute Fiskaltzari eskaria egingo diotela Abasolok zigorra kartzelan betetzeko.

PSE-EEK jakinarazi duenez, Fiskaltzari zigorra kartzelan betearazteko eskatuko dio

Plataforma Feminista "haserre" agertu da Espainiako Gobernuaren neurriagaz: "Emakumeen duintasuna eta osotasun fisiko

gizarte osoari dagokion gaia da". Hori dela eta, udaleko Berdintasun Batzordean eta Berdintasun Kontseiluan indultuaren kontra egiteko eskatu du Plataformak.

PSE-EEren izenean, Pilar Rios zinegotziak Paul Abasoloren aldeko indultua "lotsagarria" dela adierazi du: "Berrezteko programetan parte hartzea bakarrik derrigorrez oso zigor urria da; alperrekoa da administrazioek milaka euro bideratzea kontzientziazio kanpainak egiteko, gero horrelako erabakiekin pikutara bidaltzen badira".

Horrelako erabakiek administrazioaren irimotasuna "kolokan" jartzen dutela azaldu du Rios: "Sexu-abusuen gaitza ekin-tzekin geratu behar dugu, eta ez kanpainekin bakarrik". ■ J.D./A.U.

Gazteen lokalen gaineko ordenantza, aurrera

Hirigintza batzordean onartu egin dute lokalei baldintza minimo batzuk ipintzeko ordenantza

"Segurtasunagaz, intsonorizazioagaz eta garbitasunagaz lotutako minimo batzuk" arautuko dituen lokalen ordenantza Hirigintza Batzordean onartu dute. Ordenantza zehaztu dutenez, besteak beste, suteen prebentzio-rako sistema edukitzea derrigorrezkoa izango da gazte lokaletan.

Azken bi urteetan lokalek eragindako eragozpenengatik 230

denuntzia sartu dituztela nabarmendu du Durangoko PSE-EEK. Alderdi sozialistak aurkeztu zuen Hirigintza Batzordean ordenantza zehaztearen zirraborra. Sozialisten ustez, arazoaren aurrean "ezinbestekoa" da udalak lokalentzako baldintza minimoak adostea.

Datorren asteko osoko bilkuran onartuko dute behin betirako ordenantza. ■ A.U.

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA

Matrikula Epea:
urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era



2-12

MAIZTEGI
HH eta LH



12-18

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa



94 681 09 37 MAIZTEGI
94 681 04 61 OROBIOGOITIA

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan

IURRETA



Gruas Artetxek dioenez, enpresa "dimentsionatuta" egon da eta orain "egokitu" egin behar du.

Gruas Artetxek "ezinbestean" egokitu egin behar duela dio

Produkzioa %40 jaitsi dela eta "ezinbestean" egokitu beharra dutela diote

Produkzioa %40 jaitsita, "ezinbestean" gauregungo egoerari "egokitu beharrean" dagoela arrazoitu du Gruas Artetxek, ELAk salatutakoei erantzun guran. Argitu du 35 lagunek osatzen dutela lan-taldea, eta 11 daudela greba mugagabeen: "Lan-taldearen %69 dago lanean".

Enpresak ukatu egin du ELAK leporatutako "gestio txarra": "Bizi dugun egoera ekonomikoa dena da, eta ordainketei aurre egin behar izan diegu. Gerrikoa asko estutu behar izan dugu. Ahal izan dugun arte eutsi dugu langileen ordainketetan, baina horretan ere

Lan-taldearen %31,5 dagoela greban dio Gruas Artetxek; 35etik 11 langile

neurriak hartu behar izan ditugu". Egoera ekonomikoa kontu berria ez dela gogoratu dute; 2009tik egoera ez dela ona gogoratuz.

Gruas Artetxekoek diotenez, "benetako arazoa" da sortutakoa: "Enpresa dimentsionatuta egon da, eta produkzioa %40 bajatu da. Hori da errealitatea. Produkzioa egokitu behar dugu, aktiboak ere bai... Eta ezinbestean lan-taldea ere egokitu beharra dago". 10-14 kale-

ratze iragarri ditu. "Ez dago ez onik ez txarrik, egoera dena da. Denok dihardugu egoerara egokitzen".

ELAK dio ez duela "kaleratze traumatikorik" gura eta enpresagaz batzartuko direla. Gruas Artetxek onartu du zenbait batzar egin dutela, eta negoziatzen jarraitzeko asmoa daukatela. ■ A.B.

Zuzenketa: Joan zen asteko zenbakian argitaratu genuen Gruas Artetxek 24 behargin greban zeudela, baina jakin ahal izan dugunez 11 dira. Bar-kamenak irakurleei eta zuzenean eragiten dienei.

BBK-ko asanbladan parte hartzea erabaki du udalak

PSE-EE eta Bilduren botoekin egin du aurrera

BBKren asanbladaren %50 berritu behar dela eta, Iurretan aurrera egin du Ermua, Zaldibar, Berriz, Otxandio, Atxondo eta Zarautzekin batera hauteskunde-elkarte baten batzeko proposamenak. Berrizen, aldiz, uko egin diote.

PP eta EAJ agertu dira Bilduk aurkeztutako mozioaren kontra. PPren ustez, "gaiak ez du batere onurarik ekarriko". Iñaki Totorikaguena alkateak dio "bokazio alderdikoi eta politiko argia" duela, eta herriari "ekarpenik" ez diola egi-

ten uste du berak ere: "Eskas samarra da hor egin genezakeena".

Ordezkatuta egoteko aukera BBK-ko estutuek eta araudiak emandako aukera aintzat hartuta, asanbladaren aukeraketa prozesuan parte hartzeko Iurretak beste sei herrigaz batzeko erabakia jasotzen duen idatzia PSE-EE eta Bilduren botoekin onartu da. PSE-EEren ustez, "askorako ez bada ere, ordezkatuta egoteko aukera da. EAJren esku egon den asanbladan aniztasun bat izan genezake". ■ A.B.

ABADIÑO

Lau egun eman ditu Zarrabeitia euskal presoak gose greban

Preso dauden Frantziako Poitiers Vivonne espetxean, "borroka indartsu bat aurrera eramateko asmoz" burutu duten lau eguneko gose grebaren ondoren, "barruan borrokan jarraituko" dutela iragarri dute Eneko Zarrabeitia preso abadiñarrak eta Gorka Azpitarte kideak.

Etxerat: "Euskal presoak etengabe zigortzen eta bakartzen ari dira Frantziako hainbat espetxetan"

Euskal errepresaliatu politiko senide eta lagunak Etxerat elkarteak joan zen barikuko agerraldian adierazi zuenez, "euskal presoak etengabe zigortzen eta bakartzen ari dira Frantziako espetxetan". Adibide moduan azaldu zuen Etxeratek, "beste preso baten gurasoak besarkatzeagatik zigortu dute Zarrabeitia, eta beste preso batzuekin hitz egiteagatik Azpitarte". ■ I.E.

Zaharren etxea eraikitzeko proiektua kolokan dago

"Egoera ekonomikoak horrela behartuta", Bizkaian eraikitzea aurreikusita zeukan hainbat zahar etxe atontzeko proiektuak bertan behera geratu direla iragarri du Aldundiak; Abadiñon eraikitzeko zen horietako bat.

Orain hiru urte iragarri zuen Abadiñoko Udalak herriak hartuko zuela Durangaldeari zegokion zahar etxea; orduetik, udalaren eta Aldundiaren elkarlanean baldintzak jasotzen dituen hitzarmena lotzeko negoziatzen jardun dute erakunde biek. Bizkaiko Aldundiak bertan zahar etxea eraiki zezan, lursaila Abadiñoko Udalak urbanizatzea adostu zuten erakunde biek.

"Zahar etxearen proiektua bertan behera geratzen den Aldundiaren iragarpen ofizialik ez" daukala adierazi du Jose Luis Navarro alkateak.

Bizkaiko Aldundiagaz batzartu eta erakunde haren lehentasunen berri jakin arte, urbanizazio lanei ez die ekingo Abadiñoko Udalak. ■ I.E.

OTXANDIO

Euskara konplexu barik erabiltzen ikasteko tailerra

Euskara beti eta deserosotasunik barik erabiltzeko teknikak erakutsiko dituzte otsailaren 2an

Euskaldunek euskara erabiltzen dutenean jasotzen dituzten erantzun desegokien aurrean zelan jokatu aztertzen duen eta egoera deseroso horietan zer estrategia erabili ahal diren erakusten duen tailerra eskainiko du Inma Elexpuru markinarrak otsailaren 2an, 19:00etan, Kultur Etxean.

Euskara Batzordearen ekimena da eta, adierazi dutenez,

Inma Elexpuru markinarrak eskainiko du hitzaldia hilaren 2an, 19:00etan, Kultur Etxean

"tailerra euskaraz bizi gura duen pertsonentzat da; euskaraz egiteko gogoia izan eta sarri egoera deserosoen aurrean aurkitu behar izaten duten hiztunak dira tailerren hartzaileak". Ikastaroak ordu eta erdi iraungo du.

Sagardotegira martxoan

Bestalde, Otxandioko Gazte Asanblada sagardotegirako irteera prestatzen dabil martxoaren 3rako. Gaztetxean, Danoena tabernan edo Herriko Tabernan eman daiteke izena. Izena ematen duen jende konpuaren arabera erabakiko dute zer sagardotegira joan. ■ J.D.

• Haur Hezkuntza

• Lehen Hezkuntza

• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

LEARRETA-MARKINA eskola

IES BERRIZ BHI BERRIZ

Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
94 682 43 44 - 014097aa@hezkuntza.net

Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
94 682 49 62 - 015073aa@hezkuntza.net

Erdu Gurekin!!

2 urtetik 16 urtera Jantokia eta garraioa
Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz

Aurrematrikula:
Urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era

Berrizko euskal eskola publikoa

TREKING ETA KULTURA ASTE SANTUAN PERU: EZAGUTU ETA BIZI



**Ander Cimas naiz eta Bagoaz
Bidaiak-ekin batera Perura eramán
nahi zaitut! Ez galdu aukera!**

- Irteera: Apirilak 4, 21:30ean Bilbao-Madrid-Lima • Helduera: Apirilak 14, gauetz Lima-Madrid-Bilbao
- Apuntatu zaitetz 94 465 75 77 telefonoan edo info@bagoaz.com helbidean

IBILBIDEA:

Apirilak 5-Lima

-Aireportutik hotelera zerbitzu pribatua-"Museo Larco Herrera"-ra bisita-Hotel El Tambo Peru-n Ostatua.

Apirilak 6-Lima

-Hoteletik aireportura zerbitzu pribatua.Cuzco-ra bidaia.
Aireportutik hotelera zerbitzu pribatua.-City Tour+Inguruko
Ruinak-Zerbitzu pribatua Hotel Boutique Maytaq Wasin-era(AD)

Apirilak 7-Valle Sagrado

-Ollantaytambo+Pisac Merkatua
-Bazkaria bertako jatetxe batean.Zerbitzu pribatua
-Hotel Boutique MaytaqWasin(AD)

Apirilak 8-Inka bidea

-Inka Bidea.1 eguna-km88-Llulluchapampa(9 orduko ibilbidea)
-Mantenu osoa barne

Apirilak 9-Inka bidea

-Inka bidea, 2.eguna: Llulluchapampa-Phuyupatamarca(10-11 orduko ibilbidea)
-Mantenu osoa barne

Apirilak 10-Machu Picchu

-Inka bidea.3 eguna: Llulluchapampa-Machu Picchu-Cuzco
-Tour gidatua Machu Picchun zehar.Trena Cuzcora
-Hotel Boutique Maytaq Wasin(AD)

Apirilak 11-Cuzco

-Hoteletik autobus geltokira zerbitzu pribatua
-Cuzco-Puno autobusez
-Bazkaria bertako jatetxe batean
-Puno: Hostal Plaza Mayor(AD)

Apirilak 12-Puno

-"Isla de los Uros"+Amantini(Titicaca lakua)
-Zerbitzu pribatua
-Hostal Plaza Mayor

Apirilak 13-Puno

-"PREINCAS DE SILLUSTANI" Hilobiak
-Lima-ra hegaldia(zerbitzu pribatua hotelera eramateko)
-El Tambo Perú Hotela

Apirilak 14-Lima

-12:00etan hoteletik irteera(gosaria barne)
-CITY TOUR(Lima koloniala eta modernoa)
-Aireportura bidaia(zerbitzu pribatua)

Apirilak 15

-Lima-Madrid-Bilbao



*Treking-ak egin nahi ez badituzu, kontsultatu, beste alternatiba bat dago.

* 16 pertsonako taldeak, gehienez

* Prezioa: "2600" euro/pertsona

* Bakarkako gehigarria: 200 euro

www.bagoaz.com

BERRIZ

Aukera Azokagaz merkataritza bultzatu gura dute

Asteburu honetan Olakueta frontoira aterako ditu produktuak herriko hainbat merkatarik

Herrikermerkatariak ezagutarazteko eta bultzatzeko helburuagaz eratu dute asteburu honetarako Aukera Azoka, 11 saltokiren parte-hartzeagaz. Berrizko Merkatarik Elkartek du ekimenaren ardura, udalaren laguntzagaz. "Azoka hau neguan

antolatzen dugun bigarren aldia da, eta udan ere egiten dugu mota honetako ekintza. Herrian giro ona sortzea eta gure produktuak saltzea da gura duguna", azaldu du Saturnina Blanca merkatarik elkartearen presidentek.

Olakueta frontoia izango da azokaren bilgune, bi egunetan ateak zabalduz. Zapatuan 10:00etatik 19:00ak arte eta domekan 11:00etatik 14:00ak arte egongo da produktuak erosteko modua. "Jende guztia parte hartzea animatu gura dugu, eta eran-

Zapatuan 10:00etatik 19:00ak arte zabalduko dute; domekan 11:00etatik 14:00etara



Aukera Azokaren aurreko edizio bateko irudia; probalekuan garatutakoa aldi hartan.

tzuna beti besteko ona izatea itxaroten dugu", esan du elkartearen ordezkariak.

Sektore askotako 11 komertzio lekualdatuko dira, bi egunez, dendetik pilotalekura. Kirola, burdindegia, papergintza, mertze-

Sektore askotako 11 merkatarik pilotalekura eroango dute denda

ria, zapatagintza, umeentzako arropa, elikagaiak eta loradenda-ko produktuak eskainiko dituzte, azaldu dutenez. "Denetarik beste era batean" erosi ahal izateari "interesgarri" irizten diote antolatzaileek. ■ M. Onaindia

ELORRIO

Bizikidetza landuko dute gaur Txintxirri ikastolan

Bizikidetza Egunaren bigarren edizioan batuko dira arratsaldean ikasleak, irakasleak eta gurasoak

Iazko esperientzia ona izan zela-eta, gaurko Bizikidetza Egunaren bigarren edizioa antolatu dute Txintxirri ikastolan. Elkarbizitzak zera suposatzen ei du: "Sozialki harmonian bizitzea, batez ere, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia eta elkartrukeak erraztu eta bultzatzen direlako", diote. Horren

harira, "batak bestea edo elkar laguntzera bultzatzen duen sentimendua garatu gura dugu" gaineratu dute.

"Bizikidetza hobetzeko 9 esaldiak" gogoratuz ekingo diote 14:45ean, eta 15:00etatik aurrera jolas kooperatiboen zirkuituan parte hartuko dute taldeka. ■ M.O.



Aurreko esperientzia bateko unea, Txintxirri ikastolan.

ZALDIBAR

Etorkinentzako ikastaroan 19 lagunek parte hartuko dute

Amankomunazgoko Gizarte Ongizate Sailagaz batera herrira etorri berrientzako AISA ikastaroa eratu du udalak, eta, adierazi dutenez, 19 lagunek hartuko dute parte. Astelehenean hasi ziren eskolak, eta martxoaren 28ra arte iraungo dute. "Gehienak gizonetakoak dira, Maroko eta Nigeriakoak, baina tartean badira venezuelar bat eta lau errumaniar", diote arduradunek.

Euskal kultura, ohiturak eta hizkuntzaren nozio batzuk ezagutzeko aukera dute

Euskal kultura, ohiturak eta hizkuntzaren nozio batzuk ezagutzeko aukera emango die ikastaroak, erantsi dutenez. Osotara, 60 orduko ikastaroa izango da, astelehen, martitzen eta eguaztenetan banatuta, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. ■ M.O.

GARAI

Batzarra egingo dute domekan elkarteak

Otea-Loran elkarteak urteroko ohiko batzarra burutuko du domeka honetan, urtarrilaren 29an. Goizeko 11:00etan lehenengo deialdian eta 11:30ean bigarrenean, batzeko gonbita egin dute zuzendaritza batzordeko ordezkariak. Gainera, gai-zerren-

da ere eskuragarri ipini dute dagoeneko. Agurraren ondoren aurreko akta irakurri eta bidezko baderitzote onartzea izango dute lehenengo behartzat. Kideen altak eta bajak aztertuko dituzte gero, zuzendaritza batzorde berria osatu baino lehenago.

2011ko kontuak emango dituzte jarraian, eta 2012rako aurrekontuak ere plazaratuko dituzte bazkideen aurrean. Itau- eskaerentzat gordeko dute azkeneko puntua. ■ M.O.

ATXONDO

Eskolan izena emateko epea hasiko dute astelehenean

Atxondoko eskolak matrikulazio epea hasiko du datorren astelehenean. Urtarrilaren 30ean abiatu eta otsailaren 10era arte iraungo du 0-12 urte bitarteko irakas-kuntza eskaintzen duen eskolan izena emateko epeak.

Eskolak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu ere jakinarazi dituzte. Besteak beste, garraio, jantoki eta laguntza-gela zerbitzuak eskaintzen dituzte. Horrez batera, Proa proiektuan eta igeriketa ikastaroan ere parte hartu daiteke. Horrez gainera, gogorarazi dute herrian ospatzen diren jai edo egun berezietan parte hartzen jarraituko dutela: Olentzero, inauteriak, Korrika...

Bestalde, datorren irailetik aurrera eskola berrian egongo direla gogoratu dute. ■ J.D.

Datorren irailetik aurrera eskola berrian egongo direla gogoratu dute

MALLABIA

Erregistroak euskaraz egiteko aukera Bake Epaitegian

Hemendik aurrera jaiotza-erregistroa, ezkontza-erregistroa eta heriotza-erregistroa euskaraz egin ahaliko dute mallabitarrek. Udal ordezkariak jakitera eman dutenez, "azkeneko 20 urteotan hainbat herritar eta eragilek erregistroa euskaraz egin ahal izateko borrokatu dute. Zerbitzu hori euskaraz jaso ahal izango dute orain".

"Hainbat herritar eta eragilek borrokatu dute erregistroa euskaraz egiteko"

Mila Mondragon alkateak azaldu duenez, *Infogeg* izeneko aplikazio informatiko bategaz dokumentu horiek euskaraz beteko dituzte Mallabiko Bake Epaitegian. Erregistroko agiriak euskaraz egin gura dituenak zalantza bat izanez gero, UEMAko 94 627 9195 telefono zenbakira deitu dezake gaiaren inguruan informazio gehiago eskuratzeko. ■ J.G.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



Durungaldean labor

Lau kontratazio berri egin ditu Urkiola LGAk

Lanbideren diru-laguntza bitartez egin du kontratazioa Urkiola Landa Garapen Alkarteak. Interneten Durungaldearen presentzia nabarmentzeko egitasmo bitan jardungo dute lau beharginetako bik. GR Mikeldi mendi ibilbidea zein eskualdeko beste ibilbide homologatuak "txukundu eta berritzea" izango dute ardura beste biek. Horrez gainera, Zaldigori zaldi-ibilbide berria prestatzeaz arduratuko dira.

Biolentzia Ezaren Eguna astelehenean, eskoletan

Kristau Eskolako Durangoko eskolek eta Tabira Pastoral Barrutiak Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrena eta Biolentzia Ezaren Eguna oroituko dute. *Guztion bakea, guztion artean* dute lema. Nevers, Jesuitak, Maristak eta San Antonio-Santa Ritako ikasleek eta Pastoral Barrutiko abadeek ekintza iragarri dute, 11:45ean, Andra Marian.

'Humanitates' zikloa otsailean hasiko da

Arte eta Historia Museoko jardunaldiarako izen-ematea hasita dago. Zazpi modulu iragarri dituzte: *Filosofiaren Historia, Munduko Historia, Artearen Historia, Musikaren Historia, Matematika, Munduko Literatura eta Klasikoak*. Izen-ematea eta ordainketa ere atalka egin behar da.

Janari-bilketarako azken txanpa Elorrioren

Sahararen aldeko Lajwad elkarteak janari-bilketa egin du Eroskin eta herriko ikastetxeetan, eta hilabete hau ipini dutenez epe-muga, ekarpena egiteko azkeneko aukera izango dute egunotan elorriarrek. Udalak gutuna bidali du etxetara bilketan parte hartzera gonbidatuz.

IZURTZA

Etxebizitza beharrei buruz galdetu die udalak herritarrei

Herriko buzoietan zabaldu du udalak etxebizitza beharrei buruzko inkesta



Frontoi aldamenean sustatu gura du udalak hamabost etxebizitzaren eraikuntza.

Aurreko legegintzaldian ere burutu zuten izurtzarren etxebizitza beharrei buruzko antzeko galdeketa bat, eta alkatetxek azaldu duenez, datuak eguneratzeko asmoz eskatu diete orain herritarrei iritzia.

Frontoi aldamenean 2009an erosi zuen lursailean 15 etxebizitza aurreikusten dituen udalaren proiektuari lotuta, herritarren etxebizitza beharrezan berri jaso gura du Izurtzako Udalak galdeketa honeguz: herrian babeseko 15

Besteak beste, alokairuan bizi ala etxea erosi gura duten galdetu diete interesdunei

Frontoi aldamenean 2009an erositako lursailean 15 etxebizitza daude aurreikusita

etxebizitza eraikitzeke egitasmoagaz jarraitzeko oinarri moduan edukitzeko. Herriko buzoietan banatu dute, besteak beste, etxebizitza alokairuan hartu edo erostea gurago luketen; gela bat, bi edo hiruko etxea gura luketen ere galdetzen dien inkesta. Hamabost izurtzarrek erantzun diete inkestari orain arte.

Oraindino beste bi astean herritarren iritzia jasoko dituzten arren, nabariak dira zenbait joera: alkateak azaldu digunez, erosketaren aukera hautatu dute gehienek (bederatzik), eta hiru gelako etxebizitza erosteko prest leudekela adierazi.

2012rako udal aurrekontu proposamenean jaso dute 15 etxebizitza horiek eraikitzeke proiektuaren idazketarako diru-atala. Etxebizitzak eraiki gura dituzten zonalde hori "babesgune akustiko berezi" izendatzeko eskatu du Aldundiak, eta eguazteneko pleanoan jorratu zuten gaia. ■ I.E.

EAJK dio "eskua luzatu" diola gobernuari

Eguaztenean egin zuten 2012rako udal aurrekontuaren proposamenaren gaineko udalbatzarra. Ogasun batzordean udaleko alderdi biek landutako proposamenaren alde egingo zutela iragarri zuten

jeltzaleek. "Ez da desberdintasunik azpimarratzeko sasoi", adierazi zuen EAJK, "aurrekontu honek gura genituzken proiektu guztiak aintzat hartzen ez dituen arren, urtebete daukagu elkarrekin lan egiteko, eta horregatik eskua luzatu gura diogu udal gobernuari".

Aho batez onartu zuten, beraz, urtarrilaren 25eko udalbatzarrean, guztira, 716.000 euro jasotzen dituen udal aurrekontua. ■ I.E.

MAÑARIA

Andra Maria kalean argiteria berrizteko diru-laguntza

Aste honetan aurkeztu du gobernu taldeak Agenda 21 ekimenaren barruan Bizkaiko Aldundiak eskaintzen dituen diru-laguntzak jaso ahal izateko eskaria. Endika Jaio alkateak azaldu due-

Jaio: "Argiteria berrizteak epe luzera dirua aurrezteak ekarriko duela uste dugu"

nez, Andra Mari kaleko argiteria berrizteko proiektua diruz laguntzeko eskatu diote erakunde horri. Aipaturiko zonaldeko kale argietan LED sistema ipini gura dute.

Endika Jaio alkateak azaldu duenez, kontuan hartzeko moduko hasierako inbertsioa eskatzen duen proiektua da aipaturikoa, baina "epe luzera aurrezteak ekarriko duela uste dugu". ■ I.E.

San Antonio-Santa Rita
Ikastetxea

Urtarrilak 30-Otsailak 10

otik 16 urte arte

AURREMATRIKULA ZABALIK

Balbino Garitaonandia, 3 DURANGO | Tif. 94.681.6776 | Fax 94.681.41.61
www.sanantonio-santarita.com | ikastetxea@sanantonio-santarita.com

BERBAZ >

“Gure kabuz sortu dugu enpresa; zenbat eta sarriago jausi, gehiago ikasi”

Lidergo Ekintzailea eta Berritzailea izeneko karreraren lehenengo mailatik murgiltzen dira enpresa munduan



**Andoni Olaso,
Andrea Moreno
eta Laura
Estankona •**

- Smash izeneko enpresa sortzen dabilta karrerako 1. mailan
- Laura eta Andoni durangarrak dira; Andrea, zornotzarra

“Guk antolatu behar dugu denbora bulegoko lana eta bisitak egiteko”

dugu, eta gero guk antolatu behar dugu denbora bulegoko lana eta bisitak egiteko. Ordu asko sartzen ditugu bulegoan, eta astean birritan *Training Session* edukitzen dugu, arazoengatik, denok elkarrekin egoteko batzar horiek behar ditugu. Talde moduan lan egitea oso garrantzitsua da.

Bulegoa daukazuela diozue?
Bai. Han gaude bigarren mailako bi enpresak eta lehen mailakoak. Kanpotik ere ibiltzen gara bezeroak bisitatzen. Horregatik, denok elkarrekin egoteko batzar horiek behar ditugu. Talde moduan lan egitea oso garrantzitsua da.

Karrera hasi eta gutxira bezeroei bisitak egiten...
Filosofia *Learning my doing* da: zenbat eta sarriago jausi, gehiago ikasi. Zuk bakarrik irten behar duzu aurrera, ahal duzun moduan. Kurtso erdirako 25 bezero bisitatuta izan behar genituen, hainbat liburu irakurrita, eta irabazi eta fakturazio batzuk lortuta. Ez gara heldu helburuetara, baina enpresa munduan musturra sartzen hasi gara. Oñatin hiru urte daramatza karrerak, eta oraindik ez da inor graduatu. 3. mailakoek karrera amaitzean beharbada jarraituko dute euren enpresagaz, eta oraindik goiz da ezer esateko, baina agian guk ere edukiko dugu aukera! ■ A.Ugalde

Karrerako lehen eguna da. Enpresa bat sortzen hasi behar duzuela esaten dizute. Eta hiru aste barru Finlandiara zoaztela, bertan enpresa moduan lan egiteko. Horrela hasi dute karrera Laurak, Andreak eta Andonik. Oñatin Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza izeneko karrera ikasten dabilta.

Zelan sentitu duzue zuen burua enpresa bat sortu eta Finlandiara bidaiatzen?

Batxilergoan karreraren berri eman zigutenean oso orijinala iruditu zitzaigun. Lehenengo mailan bi enpresa sortu ditugu, 14 pertsonako taldeetan. Karrera hasi eta gutxira Finlandiara joan ginen; bertan sortu zuten ikasketa eredu hau, eta bertatik bertara ikusi ahal izan dugu zertan datzan. Hemen teoria ere ematen dugu, baina han praktikoa da bazarrik, eta denbora guztian enpresagaz lanean dabilta; gradua barik modulua da. Hasieran oso deskolotatuta geunden; klasean orain arte

beti egin dugu teoria eta teoria: han hasi eta berehala eskema guztiak apurtzen dizkizute. Kontua desikastea dela diote, gero ikasteko. Gure beheraldiak ere izan ditugu; “Non sartu naiz?”.

Benetako enpresa da zuena edo simulazio bat da?

Enpresa erreal bat da sortzen gabiltzana. Oraindik ez gara hasi esatutuekin, baina idatzi

faseetan gaude, eta oraindik ez daukagu lan arlo bat zehaztuta; hirugarren mailan aukeratu beharko dugu espezialitatea.

Zelakoa izan da Finlandiako esperientzia?

Batzuk finlandiarren etxeetan egon gara, eta beste batzuk erresidentzian. Han gure kabuz sortu behar genuen negozioa, eta hile eta erdian

genuen, idatzita eta oso ondo irten zen; diru askotxo irabazi genuen. Kanean joaten ginen *Ikusi mendizaleak*-eta kantatzen, jendea hurreratzeko. Finlandiarrak denak isilik, gu zarata ateratzen... Egia esan, traturako nahiko hotzak dira.

Gehiago bidaiatuko duzue?

Bigarren mailan San Frantziskora joan behar dugu, hilabete batean; Google eta Apple bisitatzera, Stanfordeko unibertsitatara... Bidaia hori egiteko guk lortu behar dugu dirua, eta horretan gabiltza. Hirugarren mailan Txina eta Indiarra joango gara lau hilabeterako; hazten dabilta herriak izanda, han ere egingo dugu lan. Bigarren mailan txinera ikasten hasiko gara. Lehenengo mailan elkar eza gutzen gabiltza, batez ere; astean behin teoria ematen

“Finlandian enpresa bati marketing planifikazioan lagundu genion, eta egun batez lokal bat jatetxe bihurtu genuen”

behar ditugu erregistratzeko. Enpresak bere logoa edukiko du, bere marka, bezeroak, helburuak...

Smash da zuen enpresaren izena. Zertan diharduzue?

Orain arte proposamen berritzaileak eskaini dizkiogu hainbat enpresari: padel torneo bat, Youtube-ko kanal bat Basque Culinary Center-eko ikasleentzat... proiektuak oso desberdinak dira. Lehenengo

jardun dugu proiektuak sortzen. Aukera batzuk izan ditugu. Esaterako, Metso izeneko paper fabrika baten egon ginen, eta marketing planifikazio berri bat diseinatu genien. Horrez gainera, onena Restaurant Day egunekoak izan zen. Egun horretan jate-txe guztiak prezio bereziak izaten dituzte. Guk lokal bat alkatatu genuen, eta han tortilak, paella... egin genituen. Basque-Spanish Food ipini

“Bigarren mailan San Frantziskora goaz; hirugarrenean Txina eta Indiarra”

OSASUN GIDA



ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO

tf: 94 620 11 00



**GOIATZ MURUA
LETURIAGA**

PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30

FISIOTERAPIA



**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

COACHING

elespejodelcoaching.es

OIZ, 6 BEHEA DURANGO
94 603 06 74 - 609 432 948



Isabel Santiago
COACH

**Agur esan gura diezu
zure minei?**

PNL-rekin lortu daiteke

PNL teknikak minaren arrazoi emozionalak aurkitzea du ardatz ariketa errazen bitartez.

Hurrengo pausoa emozio horiek bideratzea da, pentsamendu "negatibo", uste, ohitura horiek aurkitzea eta konpontzeko lan egitea, zure helburuekin bat datozen beste batzuentatik aldatzea eta horrela, apurka-apurka, mina txikitzea.

Mina da gure gorputzak duen argi gorria, aurrera jarraitu baino lehenago konpondu beharreko gauzak daudela esateko.

Bidali emaila:

info@elespejodelcoaching.es

Zure zalantzak, galderak eta ezinegonak argituko ditut coaching-aren ikuspegitik

KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Udalaren fiskalizazioa

Zelan gertatu daiteke Herri Kontuen Euskal Epaitegia Durangoko Udalean bederatzi hilabete lanean aritzea, eta oposizioan gauden taldeei informazio hau izkutatzea? Erantzun bakarra dago: gardentasun falta.

Tribunalak egindako txostena irakurri eta gero, begi bistakoa da Durangoko Udalean izugarria dela gardentasun falta. Osoko bilkuran onartu beharreko obrak "Alkatearen dekretuaren bidez" izan dira onartuak, pertsonala kontratatzerako orduan gardentasun faltako prozedurakerabili dira, diru-laguntzak modu zuzenean eman dira ...

Beste alde batetik, obretako aurrekontuetan egondako igoerak ere kezagarriak dira. Azken urteetan egindako obrek -Landakoko piszinak, Liburutegia, Hizkuntza Eskola- %30etik gorako igoera izan dute. 2009 urtean egindako obretan 4.000.000 euroko igoera. Diru kopuru honekin beste proiektu batzuek aurrera irten ahalko zuten: alokatzeko etxebizitza sozialak, kultur etxe bat... Udal batek ezin du herritarren etorkizuna mugatu bere aurreikuspen faltagatik.

Ez gaituzte kontuan hartzen oposizioan gauden taldeok, baina larriagoa dena: ez dituzte herritarrak kontuan hartzen.

Bilduk parte-hartzearen alde egiten du. Herrian, benetan zer gauza diren beharrezko jakiteko, ba al dago herriari galdetzea baino gauza hoberik? Lehentasunak ezagutzeko, zergatik ez diogu herriari galdetzen? Herriaren erantzuna entzuteko prest al dago PNV?

Durangoko Bildu

Klik batean @



Trenbideko lanak noiz amaituko dira?

Berriztar batek bidalitako argazki honen bidez Berrizko trenbideko lanak gehiegi irauten ari direla salatu gura du. Gune horretan trenbidea gurutzatzeko pasabide bi daude eta bata lanen ondorioz itxita dagoenez, derrigor trenbideko hesietara joan beharra dagoela dio. Horrek, treneko erabiltzaileei ere zuzenean eragiten die.

Sei hankako mahaia



Aitziber Irigoras
EAJ

Ondo ibili eta gitxi gastatu

Amari ehunka bider entzundako esaldia; lagunen artean sarritan entzuten doguna. Eta egun, gureinguruabarekonomikoakikusita, sakon barruratu dogun leloa da. Familiak horixe galdetzen deutesie euren buruei, posible da gitxi gastatzea eta ondo ibilitzea? Ditugun sarrerak nahiko izango dira? Posible izango dogu etxeko kreditua, umee behar ditueen arropak eta kotxe zaharren konponketa ordaintzea eta, aldi berean, bizirautea? Zelan ibiliko gara? Milaka familiok galdera horiek etengabe egiten bizi dira, lanak dakarren diru-iturriari lotuta, langabeziaren mamua egunero-egunero uxatzen. Eta zentimo bakoitzari egokitzen jakon garrantzia emoten, egin beharreko ordainketak lehenasunez mailakatzen.

Begi-bistakoa da gure gastu maila eta gure diru-sarrerak bat etorri behar direla. Eta erakundeok be egun behar dogun erantzukizun apustua da. Udalak beren beregi galdetu behar deutesogu gure azpiegiturari, zeintzuk dira gure sarrerak? Zeintzuk dira gure gastuak? Ezinbestekoak dira danak? Lehentasun berbera daukie? Hau egingo dogu? Nork ordainduko dau? Zelan ordainduko da? Posible dogu hemendik edo handik diru pixka bat aurrezte, ezustekoren bat gertatuz gero estu eta larri ez ibiltzeko?

Udal guztiak prozesu honi heldu behar izan deutesogu, edonola-koa izanda udal-gobernuaren kolore politikoa, eta gure kontuak "argaltzen" saiatu gara. Aurrekontuetan nabaria da saiakera hori. Donostiako alkateari orain dala pare bat egun entzundako berben arabera, kontuak egokitu behar dira egoera ekonomikoak bultzatuta, eta hori ulertzeko moduko errealitatea da. Logikoa danez, egoerari begiratuta, oposizioari axolagabekeria ez jokatzea eta erantzukizunez aurrekontuak babestea eskatzen eutsen. Suposatzen dogu, bere udalean eskatutakoa bere talde politikoa beste udaletan emoteko prest dagoela, hau da, oposizioari eskatzen jakon erantzukizunaren poderioz posible izango dogula behar doguzan aurrekontuak onartzea. Hala bedi!

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



durangaldeko
astekaria

2012ko urtarrilaren 27a
10. urtea - 444 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso,

Amaia Huarte, Ixaso Altuna

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onandia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa

Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

@anbotokultura

KULTURA[>]

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Ikuspuntu komikotik heldu die bikote harremanei La Papa taldeak

Otsailaren 3an eta 4an, San Agustin kulturgunean egingo du Durangoko La Papa teatro antzerki konpainiak *Las mariposas del estómago no han muerto* obraren estreinaldia. Eguaztenean, areto horretan aurkeztu zuten

Rosas Rojas lanean bikote harremanei loturiko errealitate beltzenari –genero indarkeriari– erreferentzia egin bazioten, bikote harremanei beste ikuspuntu batetik helduko diote Durangoko La Papa Teatro taldeko Izaskun Asuak eta Ricardo Combik *Las mariposas del estómago no han muerto* obragaz.

Ricardo Combi antzezlanaren gidoigile eta aktoreak azaldu duenez, “alderdi guztiei begiratu oso positiboa izan zen *Rosas Rojas* antzezlanaren ondoren, bikote harremanen gaiari buruz ikertzen jarraitzea baina beste era batean ematea erabaki dugu”: gaia komediaren ikuspuntutik landu dute oraingoan.

“Bikote harremanei buruz, baina ikuspuntu komikotik dihardugu”

“Beharbada, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak onartu eta ulertuta, errespetuaren bitartez bikote harremanetan harmonia bat aurkitu genezakeela adierazi gura dugu obragaz”, azaldu du aurkezpenean Combik. Susana Toscano zuzendariak zera zehaztu du: “Gauza zentzudunak esaten dituen obra da, baina gau-

za garrantzitsua esateko asmo hori agertzen ez duena: era disimulatuan esaten duena”. Komediaren bitartez mezu zehatza bidaltzen du, zuzendariaren berbetan, *Las mariposas del estómago no han muerto* obrak, “eta horregatik gustatu zitzaidan”.

“Honi buruz berba egiteko beharra dagoela uste dugu”, azpimarratu du Izaskun Asua aktoreak aurkezpenean: “Aukera eta esku-bide berdintasuna defendatu arren, gizon-emakumeok ez gara la berdina onartu behar dugu, horrela bakarrik lortuko dugu eta elkar ulertzea”. Mezu argia zabaldu gura dute oholtzatik: “Desberdintasuna ez dadila izan sekula inor mendean hartzeko gonbita”.

“Komedia klabean eta geure buruari barre eginez, baina mezu argiagaz” datoz San Agustinera, eta gazte, heldu eta zaharrak, guztiak, gonbidatu dituzte antzezlaneko mezu hori jasotzera.

“Aurreko lanagaz ere emanaldi asko eskaini zituzten, eta erakutsia dute ikusleentzako erakargarritasuna badutela”, Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko programatzaileak dioenez.

Lehenengoz Euskadin

Durangoko La Papa Teatrotoren estreinaldiaren aurretik, asteburu honetan, San Agustin, Arriola eta Zornotza Aretoak elkarlanean ekarrita, Histrión taldearen *Traición* Euskadin lehenengoz izango dugula ere azpimarratu du Arrazolak. Harold Pinter Nobel saridunaren testuan oinarritutako lana da, Durangon urtarrilaren 29an 19:00etan ikusgai izango dena.

Bazkide berriak egiteko kanpaina abiatu dute urte berriagaz San Agustinen: urteko 25 euroren truke, Euskadiko antzokien sarean ikuskizun guztietarako %25eko deskontua eta urtean bi ikuskizun doan eskaintzen ditu. ■ I.E.



Javier Obregón da *Las mariposas del estómago no han muerto* obraren eszenografiaren arduraduna, eta gehiegi aurreratu gura izan ez duen arren, zerbait berezia prestatu duela esan du aurkezpenean: “Modulu mugikor batzuek osatzen dute eszenografia, eta ohe batean ixten dira eszena guztiak”, dio barrez.

Rosas Rojas lana prestatzeko legez, datorren asteburuan estreinatuko duten antzezlanaren osatzeko “bikote harremanei buruzko psikiatra, psikologo eta soziologo azkeneko ikerkuntzak hartu ditugu erreferentziatzat”, azaldu du Combik. “Gizon-emakumeok zergatik era batera edo bestera funtzionatzen dugun azaldu guran burututako ikerketa horiek aintzat hartu ditugu antzezlanaren sortzerakoan”.

Aktore bi dira oholtzan ikusiko ditugunak: Ricardo Combik eta Izaskun Asuak antzeztzen dituzten Julia eta Roberto. Antzeztzen dituzten pertsonaia bien arteko ekintzei eta jarrerari buruz eztabaidatzen dute Roberto eta Juliak antzerkia antzerkiaren barruan.

Antzeztzen dituzten pertsonaien inguruan eztabaidatzen dute

Antzezlaneko istorioak aurrera egin ahala joango da ikuslea La Papak aurkezpen orrian botatzen duen galdera erantzuten: “Galduko ote dira Julia eta Roberto gaur egungo bikote baten elkarbizitzaren bidezidorretan?”

Antzerkia antzerkiaren barruan: aktore bikotea da protagonista



ZINEFORUMA > EMANALDIA

Ohiz kanpoko ikus-entzunezko ekoizpenak ezagutzera emateko foroa

Orain urtebete ingurutik antolatzen dute Zineforuma Durangoko Liburutegian. Urtarrilaren 31koa da hurrengo zita

Durangoko Udal Liburutegiak eskainitako espazio eta baliabiekin, Artekaliburudendako arduradunak proposatuta, lau lagunen artean (Beni Calvo, Aitziber Zugaza-Artaza, Germán Rodríguez eta Vanesa Calvo) antolatzen dute, duela urtebetetik, Zineforuma.

Ohiko zinema ekoizpenetik aparteko ikus-entzunezkoetan interesatuek badute nora jo

Orain urtebete ekimena abiatu zutenetik, emanaldietara hutsik egiten ez duten ikusleen leialtasuna lortu dute; dozena bat lagun elkartzen dira, gutxienez, hitzordu bakoitzean. Hala ere, "ikusle bakarra baltor ere jarraituko genuke eskaintzen", diote antolatzaileek: "Ikusi beharrekoak diren filmak daudela uste dugulako".

Zinema eta telebista konbentzionalaz gainerako ikus-entzunezkoak interesatzen zaizkion jendea izaten da liburutegiko Zineforumerara hurreratzen dena.

Antolakuntzan "asko inprobisatzen" dutela dioten arren, zenbait ideia oso argi dauzkate antolatzaileek: filmak aukeratzekoan "arrazoi estetikoak bakarrik" dituztela aintzat azaldu digute. Zinemaren Historiaren adierazgarritzat dauzkaten filmak erakutsi gura dituzte.

Antolatzaile bakoitzak bere joera tematiko eta formalak dauzkala ere azaldu digute: zinema esperimentalak eta Espainian ekoizirik lan ezezagunak, musikalak eta zinema klasikoa eta zinema fantastikoa dituzte gogokoen.

Zineforumerara hurreratzen diren lagunen ekarpenak jasotzeko prest daude Durangoko Liburutegian; film bat eman gura duenak, kopia lortu eta aurkezpen bat egitea da baldintza bakarra. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Libe Mimenza
Kazetaria

Piratak

Interes biziz jarraitu ditugu azkenaldian Interneten inguruko berriak. Sinde legea, SOPA, PIPA, webgune erraldoien greba eta Megaupload deskarga atariaren itxiera.

FBIa tartean, azken albisteak hedabide guztien portadak bete zituen pasa den astean. Baina erreallitatea bi aurpegiko aitzoz erdibituta aurkeztu ziguten beste behin ere: pirata kriminalak vs. kultur industriaren defendatzaile sutsuak.

Internet sortu aurretik, industria kulturalak negozio eredu borobila ehundu zuen urteetan zehar. Kultur produktuen kontsumoa —ergo: salmenta— kontrolpean izateaz gain, salerosketa oro errentagarritasun handiz zuzutzen asmatu zuen.

Internet ezagutu genuen arte. Eta horrekin bat, industria kulturalak ekoiztutako produktuak debalde kontsumitzeko aukera. Baina ez gaitez inuzenteak izan, zerbitzariak produktuz gainezka gure esku jarri dituztenak ere negozio borobila izan dute esku artean.

Gaur egun, Internet erabiltzaileok kontsumo ohitura berriak ditugu. Guretzat, sareak eskaintzen dizkigun bitartekoak eta askatasuna abagune ederra dira kultur kontsumo zein trukeko.

Horregatik, XXI. mendeko internetok industria kulturalarentzat eskaera argia daukagu: resetatu ezazu zuen negozioa eta barneratu behingoz paradigma aldaketa!

Guk kultura kontsumitzen jarraituko dugu, baina horrek ez du zuen aberasteko sistema zaharkitua elikatuko.

Alternatiba hoberik ez dagoen bitartean, trukean jarraituko dugu P2P bidezko sareetan. Badakizue zer nahi dugun. Piratak gara eta harro gaude.

Ohiko hari narratiborik bako 'Nocturno 29' martitzenerako

Ez dela erraza izan film honen kopia lortzea aipatu digute antolatzaileek. Pere Portabellak 1968an zuzendu zuen, izenburuan —eta garaiko zentsoreak ohar-

tu ez arren— Gerra Zibilaren amaieratik igarotako urteei erreferentzia egiten dien *Nocturno 29* filma.

Antolatzaileen berbetan, ohiko hari narratiborik bako filma da Portabellarena: 25 sekuentzian, aldarrikapen politikoa eta abangoardiako adierazpen artistikoa uztartzen dituena.

Horregatik aukeratu dute: zineman ohituta gauden aurkezpen-korapilo amaiera konbentzientik aldantzen delako. Ikusle gehienok ikustera ohituta egon ez arren, "zinematografiari dagokionez oso esanguratsuak diren filmak" erakutsi gura dituzte Zineforumean.



MUSIKA > JAIALDIA

Kalerarock jaialdirako sarrerak, eskuragarri

Zortzi musika talderen kontzertuak iragarri dituzte otsailaren 25erako

Astelehenetik, salgai daude otsailaren 25ean Durangoko Landakogunean ospatuko den Kalerarock elkartasun jaialdirako sarrerak. Durangaldeko hainbat tabernatan eskuratu ahalko dira 13 euroan sarrerak, eta musika jaialdiaren www.kalerarock.org helbidean ere erosteko aukera eskaini dute.

Durangaldeko tabernetan eta 'www.kalerarock.org' helbidean erosi daitezke sarrerak

Zortzi musika taldek joko dute, otsailaren 25eko Durangoko hitzordu horretan: Euskal Herriko musika taldeen askotariko eskaintzaren erakusle diren Ze Esatekl, Vomito, Bizardunak, Habeas Corpus, Obrint Pass, Des-kontrol, Betagarri, eta Trikizio taldeek joko dutela iragarri du antolakuntzak.

Otsailaren 25ean, baina, egun guztira-ko ekintza sorta antolatu dute, "jai giroa eta elkartasuna bakoitzak bere erara gozatu dezan". Bazkaria, elektrotzaranga, graffitiak, puzgarriak, animazioa eta bertsolarien saioa antolatu dituzte, Kalerarock jaialdian, 17:00etatik aurrera burutuko dituzten kontzertuez gainera. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 4 17:30ean
TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON
JUNIOR. HAURRENTZAKO PAILAZOAK
Sarrera: 4euro.

OTSAILAK 10 22:00etan
GAU ELEKTRONIKOAK
MUSIKA ELEKTRONIKOAK ZUZENEAN
III. URTEURRENA. Sarrera: 10-12euro.

OTSAILAK 11 17:00etan
DURANGALDEKO
II. SURF JAIALDIA
JAIALDIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

TRAICIÓN de Harold Pinter

Histrión Teatro

Urtarrilak 29 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

San Blas 2012

Abadiño

anboto



Zatoz San Blas jaiak gurekin ospatzera!



ABADIÑOKO
UDALA

San Blas 2012 egitaraua

Urtarrilak 29, domeka

09:00etan, 'Abadiño auzorik auzo' ibilaldia. Gerediagako baselizatik irtengo dute eta probalekuan amaitu, 13:00-13:30ean. Irteeran argazkia aterako dute. Hamabi Harri auzo elkarteak antolatuta.

Otsailak 2, eguena

19:00etan, San Blas 2012 Pilota Txapelketako final-laurdenak eskuz, Tornosolo trinketean.

Otsailak 3, barikua SAN BLAS EGUNA

Azoka, ganadua, baserri-tresneria, burdinaria, gazta ortuariak, frutak, txakolina, ogia, ezti, artisautza eta landarak. XX. Abelburu Erakusketa ere izango da. 09:00etan, Txanbolin taldeko txistularien kalejira. 10:30ean, Umeentzako tailerrak, Txanporta kultur etxeko arkupean. 11:00etan, Meza nagusia, San Trokaz elizan. 12:00etan, Bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskolakoak, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu. 12:30ean, Herri Kirolak, probalekuan. Ondoren, nekazal produktuen sari banaketa egingo da.

17:00etan, Idi-probak. 18:00etan, Erromeria: Lotxo taldea, Ferialeku plazan. 22:00etan, Idi-probak.

Indarkeria sexistarik gabeko gunea, 12:00/14:30 eta 18:00/22:00, Ferialekuan.

Otsailak 4, zapatua SAN BLAS TXIKI EGUNA

11:00etan, Eskola arteko krosa (Bizkaiko Txapelketa), Traña-Matiena auzoan. Bidezabal atletismo taldeak antolatuta. 14:30ean, Emakume baserritar eta artisauen bazkaria, Soloa jatetxean. Izena emateko azken eguna otsailaren 2a: 94 466 94 20 (menua, 30 euro). 16:30ean, V. Eskola Igeriketa Liga, udal igerilekuetan: Igorre, Tabira, Zornotza, Ondarroa, Atxondo, Lauaxeta, Astola, Gernika eta Lekeitio. Astola Igeriketa Kirol Taldeak antolatuta. 17:00etan, Idi-probak. 18:00etan, Tor magoaren ikuskizuna, Txanporta kultur etxean. Gero, txokolate-jana Txirikilla aisi taldearekin (urtarrilaren 30etik aurrera hartu daitezke Udal mediatekan; bi pertsonako goitik jota).

19:30ean, Abadiño Done Zezili abesbatzak San Ageda koplak abestuko ditu kalerik kale. 22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 5, domeka

11:00etan, San Blas 2012 Pilota Txapelketako aurre-finalak eskuz, Tornosolo trinketean. 18:00etan, Idi-probak.

Otsailak 6, astelehena

22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 10, barikua

22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 11, zapatua

17:00etan, Idi-probak. 22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 12, domeka

11:00etan, San Blas 2012 Pilota Txapelketako finalak eskuz, Tornosolo trinketean. 18:00etan, Idi-probak.

Otsailak 13, astelehena

17:00etan, Idi-probak. 22:00etan, Idi-probak. Ondoren, txapelketaren sari banaketa.

Otsailak 18, zapatua

10:00etan, XXIV. Burduntziko Bildots txapelketa. Txakolin erakusketa. 14:00etan, Bildots bazkaria, probalekuan.

ABADIÑOKO GAZTETXEA ETA TXOSNAGUNEA

Urtarrilak 27, barikua

21:00etan, Bertso afaria: Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi, Gaztetxean. Txartelak Larrano tabernan. Ondoren, II. Koipelustre kopla jarrien txapelketaren sari banaketa. Gogaikarri bertso eskolak antolatuta.

Urtarrilak 28, zapatua

22:30ean, Kontzertua, Gaztetxean:
- El Lobo de Armañon (Josu Distorsioen talde berria)
- Primeros Auxilios (Gernika)

Otsailak 3, barikua

Egun guztian zehar, jai giroa.

Otsailak 4, zapatua

23:00etan, Rock jaialdia, Txosnagunean:
- Kruder
- Arkada Social
- Itziarren Semeak

OHARRA

Otsailaren 22tik martxoaren 9ra, San Blas 2012 Argazki Lehiaketako argazkien erakusketa ikusgai Txanporta kultur etxean. ORDUTEGIA: Astegunetan, 10:00etatik 20:00etara.



JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

HONDA

STIHL®

SAME

pasqualli

VIKING®

CARON

BCS

Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03
juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com



'Auzorik auzo' ibilaldia hainbat ermitetan zehar

Domekan, 08:30ean sinatu ondoren, Abadiñoako 12 basiliza zeharkatuko dituzte auzorik auzo



Hamabi Harri auzo elkar-teak Abadiño, auzorik auzo ibilaldia antolatu du domekarako. Parte-hartzaileak batzeko hitzordua Gerediagako basilizan ipini dute, 08:30ean. Sinadurak batu eta familia argazkia aterata ibilbideari ekingo diote, 09:00etan.

Antolatzaileek aurtengo ibilbidea 12 ermita zeharkatuz diseinatu dute: Salbadore basiliza, San Prudentzio, San Bizente, Aingeru Guardakoa, San Trokaz, San Martin, San Antolin, Santa Eufemia, Santa Luzia, San Kristobal, Andra Mari eta Aita Kurutzeko. Zazpigarren edizioan parte-hartzaileek ibilaldi luzea (21 km.), ertaina (18 km.) eta laburra (10km.) izango dituzte aukeran, bakoitzaren sasoi puntuaren arabera. Helmuga probalekuan prestatuko dute, 13:00etan, luntxagaz eta trikitilariekin.

Helmuga probalekuan prestatuko dute, 13:00etan, luntxagaz eta trikitilariekin

HAINBAT ERMITETAN ZEHAR

<p>1 SALBADORE BASELIZA Baseliza hau XVIII. mendekoa da. Zin eliza da. Inguruko harriak junteroen jesarlekuak ziren, merindadearen batzarretan. Kargu publikoek, korrejidoreak eta merindadeko tenienteak zin egiten zuten bertan, foruak defendatuko zituztela.</p>	<p>5 SAN TROKAZ Abadiñoako San Trokaz eliza XVIII. mendeko elizkizunetarako Bizkaiko eraikinik interesgarrienetarikoa dugu. Barroko estiloko tenplu handia.</p>	<p>9 SANTA LUZIA Baseliza hau Sagasta auzoan dago, eta XVI. mendean eraikitakoa da.</p>
<p>2 SAN PRUDENTZIO Gaur Trañako herri-eskolak dauden lekuan zegoen, 1972an bota zuten.</p>	<p>6 SAN MARTIN Gaztelua auzoan dago eta XVIII. mendekoa da.</p>	<p>10 SAN KRISTOBAL Mendiola auzoko muino batean dago, eta XVI. mendean eraikia da.</p>
<p>3 SAN BIZENTE (ASTOLA) Errenazentista estilokoa da, XVI. mendekoa.</p>	<p>7 SAN ANTOLIN Estilo barroko erretaula ederra dauka. Bertan gordetzen diren irudiak San Antolin, Paduako San Antonio, San Antonio Abata, Santa Klara eta San Bartolome dira.</p>	<p>11 ANDRA MARI Gaurko eraikuntza 1791koa da, eta Bartolome Dteizak altxatu zuen.</p>
<p>4 AINGERU GUARDAKOA Estilo barrokoa eta herrikoia nahastuta dauzka, eta XVII. mendekoa da.</p>	<p>8 SANTA EUFEMIA Irazola auzoan kokatuta, basiliza hau XVI. mendekoa dela esan daiteke, XVIII. mendean berreraiki bazen ere.</p>	<p>12 AITA KURUTZEKO Zelaietan dago, eta XVI. mendekoa da.</p>

Ibilaldia luzea: 21 km / Ibilaldi ertaina: 18 km / Ibilaldi laburra: 10 km

Asfalto-bidea Galtzada Baso-bideak

SERRATU S.L.

GALDARAGINTZA ETA ITXITURAK

Astola, 48 48220
ABADIÑO Bizkaia
Tel.: 94 620 18 37
Fax: 94 681 86 35

Enpresetan mantenimentua

Launa plus
Ondua

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Sanblasetako merkatu koloretsua bisitarien gozagarri

Baratzeko produktuak salgai ipiniko dituzten hirurogeita hamarretik gora ekoizle batuko dira

Ganadaua, baserri tresneria, burdineria, ortuariak, frutak, gazta, txakolina, ogia, ezti, artisautza lanak eta landareak ipiniko dituzte, besteak beste, otsailaren 3an San Blas Azokan parte hartzera hurreratzen diren nekazari eta abeltzainek bisitarietzako eskuragai.

Ortuarien eta baserriko bestelako produktuen azokagaz batera, abelburuen erakusketa egingo dute

Durangaldeko zein beste eskualde eta herrialde batzuetatik etorritako nekazariak atondutako erakusmahaiak

Ortuarien eta baserriko bestelako produktuen azoka horregaz batera, Abelburuen XX. Erakusketa ere hartuko du, otsailaren 3an, Abadiñoako San Blas Azokak.

Durangaldeko zein beste eskualde eta herrialde batzuetatik etorritako nekazari eta abeltzainek 09:00etarako dotore atonduta edukiko dituzte, besteak beste, San Trokaz, Ferialeku zein Txanporta plazetan eta Gaztañodi zein Zeletabe kaleetan ipi-

niko dituzten erakusmahaiak, jendea-ri produktuak dastatu eta erosteko aukera eskaintzeko.

Baratzeko produktuak salgai ipiniko dituzten hirurogeita hamarretik gora ekoizle itxaroten dituzte, aurtentzen, azokan; urteroko hitzorduari faltarik egingo ez diotenak asko. Nekazaritza-makineria eta eskulangi-leen erakusmahaiak eta landare haztegi-eko produktuak ere izango dira Abadiñoako azokan salgai.

Abelburuen azoka

Herriko abeltzainen karpa, Lorra nekazarien elkarteak antolaturiko hainbat arrazatako abelburuen erakusketa, eta aurrez izena eman duten Bizkaiko abeltzainek salmentan ipiniko dituzten abelburuak jasotzeko lekua atonduko dituzte San Blas egunean, Zelaietan.

DATU BATZUK

Ordutegia
Goizeko 09:00etan hasi, eta eguerdira arte

Ganadua
Hainbat arrazatako abelburuen erakusketa, salmentara-koena, eta herriko abelburuen karpa atonduko dituzte.

Ortuko produktuak
70 erakuslelik gora

Landare haztegiak
10 erakusle

Nekazaritza makineria
22 erakusle



BANAKE TAK MIOTA S.L.
Miota, 6 behea - 48230 ELORRIO
Tel.: 94 623 18 92 - Faxes: 94 682 06 51

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaillea:

di-da komunikakzioa

diselnu / itzulpena / akzioa
www.di-da.com

Txanporta plaza, 4 B behea 40220 Abadiño (Bizkaia) tel. 94 681 02 61 faxa. 94 681 20 79 info@di-da.com



Indarkeria Bako Gunea, azoka egunean bertan, Ferialekuan

Ferialekuan postu berezia ipiniko dute San Blas egunean; indarkeria sexistaren inguruko informazioa eskainiko du Emagin dokumentazio eta ikerkuntza zentro feministak

Berba desatseginak, lizunak, adarjotzeak, gorputz ikutuak... jai giroan jokabide sexistak hainbat izan daitezkeela konturatu eta horien kontrako jarrera bultzatzeko asmotan, postu berezia ipiniko dute San Blas

Postua 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 22:00etara egongo da zabalik

Egunean Ferialeku Plazan: Indarkeria Sexista Bako Gunea.

Emagin dokumentazio eta ikerkuntza zentro feministaren eskutik, eguerdi partean 12:00etatik 14:30era eta iluntzean 18:00etatik 22:00etara egongo da postu hori zabalik, eta bertan indarkeria sexistaren gaineko hainbat informazio ipiniko dute eskuragai.

Abadiñoko Udaleko berdintasun teknikari Aitziber Goitia Martinezek azaldu duenez, "badi-rudi, jaietan gertatzen denak ez

"Jaietan areagotu egiten diren jarrera sexistaren salaketa bultzatu gura dugu"

"Gure asmoa ez da jaien irudi ezkorra ematea, onartezinak diren jokabide sexistak salatzea baino"

daukela zerikusirik eguneroko bizimoduarekin, baina festak ez daude errealitatekanpora; egunerokoa indarkeria sexista gure jendar-tean oso hedatuta dagoen errealitate dugu, eta jaiak ez dira salbuespen". Jaien irudi ezkorra eman baino, "jaietan indartu eta areagotu egiten diren gertakizun hauekiko sentsibilizazioa eta salaketa" egin gura dutela adierazi du berdintasun teknikariak.

Lan banaketa jaietan

Berdintasun Saitetik, bestalde, nabarmendu dute jaietan "sexuetan oinarritutako lan banaketa" dela-eta emakumeek hainbat behar izaten dituztela, eta ezinbestekoa dela lan horiek banatzea, "emakume eta gizonen festak berdin gozatu ahal izateko".



Aitziber Goitia Martinez •

▪ Abadiñoko Udaleko berdintasun teknikaria

Sentsibilizatorako gune bat zabaldu gura izan duzue jai-giroaren erdian.

Gure helburua jaietan edo parranda giroan gertatzen diren eraso sexistei aurrea hartzea da; eraso horien kontzientziazioa bultzatzea eta emakumei euren burua defendatzeko tresnak eta bitartekoak eskaintzea. Asmoa ez da jaien irudi ezkorra ematea, onartezinak diren jokabide sexistak salatzea baino.

Zelako jokabide sexistak nabarmentzen dira jaietan?

Denetarik dago: berba eta begirada lizunak, gorputz ikutuak, irain eta jazarpen sexistak... Gure herriko

txosnetan, tabernetan, kaleetan... jai egunetan ere, indarkeria sexistak mila forma eta itxura hartzen ditu.

Jaietz gozatzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean desberdintasun handiak ikusten dituzu?

Jaietan gozatzeko emakumeek asti gutxiago eta lan karga handiagoa izaten dute: jaietako arropetaz arduratu, bazkari eta afari erraldoiak prestatu, senideen zaintzaz arduratu... Ezinbestekoa da lanak banatzea, etxeko lanen eta familiaren zaintzaren erantzukidetasuna jaietan ere sustatu behar da, emakumeek eta gizonen festak berdin gozatzeko aukera izan dezaten.



ERLIA
CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com

646 247 350
946 814 107

- Obra-hondakinen bilketa hainbat neurriko edukiontzietan
- Geure zaborteja

- Agregakinen banaketa
- Industria eta eraikuntzako ondar bizigabean kudeaketa

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO • Fax: 946 810 204



Oliden, Lopategi eta Soarte dira favorito

Idi-proba txapelketak 38 lehiakide izango ditu, 8 egun eta 12 jaialditan banatuta

Idi-proben katedralak Bizkaiko eta Gizpuzkoako 38 idi pare onenak hartuko ditu aurten ere, 8 egun eta 12 jaialditan banatuta. Adituen ustez,

Soarte, Iñaki Oliden, Iñaki Lopategi eta Ekomet dira favoritoak.

Otsailaren 3an, San Blas egunean, jaialdi bi daude. 17:00etan Rafa Idarreta, Santa Engrazi eta Bar Goieta lehiatuko dira; 22:00etan Txomin Renteria, Luis Uriagereta eta Biedenabari plaza-ratuko dira. Otsailaren 4an fabori-toetako lehenengoa ikusi ahalko da, 17:00etatik aurrera: Iñaki Lopategi Aburiza eta Mikel San Pelaio izango ditu lehiakide; 22:00etan Rafa Alegria, Artasoro eta Biritxinaga batuko dira. Otsailaren 5ean, 18:00etan, Soarte

anaien idi pareak jardungo du, aurreko egunean Lopategi egin-dako lanaren jakitun dela; Laski eta Muebles Urrutiak osatuko dute arratsaldeko jaialdia.

Hilaren 6an, 22:00etan, Telleria, Zuriñe Uriagereta eta Isidro Erretegiaren txanda izango da; otsailaren 10ean 22:00etan hasiko den jaialdia lau idi pare batuko dituen bi jaialdietako lehenengoa izango da: Artaso, Erauskin, Intxillarte eta Luberri.

Otsailaren 11n, 17:00etan, Sonia Asenjo, Goiz Argi eta Mendipereren idi pareak ibiliko dira harriari tiraka. Gaueko jaialdian, 22:00etan, irabazteko favoritoen artean dagoen Iñaki Olidenek jardungo du, Belarretaren eta Anaitzen idi pareekin batera.

Otsailaren 12an, 18:00etan, lau lehiakidek jardungo dute nor baino nor gehiago: Jose Ramon Bilbao, Bizkiz, Patxi Arzadun eta Juan Agustin Bilbao.

Otsailaren 13ko jaialdi bikoitzagaz amaituko da txapelketa. 17:00etan Urki Txiki, Erreten eta Ekometek neurtuko dituzte indarrak. Azken horiek ere irabazteko hautagaien artean daude. Azkenik, 22:00etan, Patxi Illarreta, Goieta Taberna eta Soarte lehiatuko dira Abadiñoeko probalekuan.

SARIAK

- Irabazleak:** 2.000 euro, garaikurra, txapela eta mantak
- 1.700 euro eta garaikurra
 - 1.500 euro eta garaikurra
 - 1.300 euro eta garaikurra
 - 1.100 euro eta garaikurra
 - 1.000 euro eta garaikurra
 - 950 euro eta garaikurra
 - 900 euro eta garaikurra
 - 850 euro eta garaikurra
 - 800 euro eta garaikurra
 - 750 euro
 - 700 euro
 - 650 euro
 - 600 euro
 - 550 euro
 - 500 euro



400 euroko saria azokako argazki onenarentzat

San Blas egunean Argazki Rallya egingo dute

Otsailaren 3an, San Blas egunean egindako argazkiak sartuko dira lehiaketan. Irabazleak 400 euro jasoko ditu, eta bigarrenak 250. Herriko argazkirik onenak ere jasoko du saria: 150 euro. Argazki bi bidali ahalko ditu argazkilari bakoitzak: 30 x 40 zm-ko euskarri zurrunean. Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan zein posta arruntez aurkeztu ahal dira, otsailaren 16a baino lehenago. Otsailaren 22an, 19:00etan, Txanporta kultur etxean burutuko dute sari-banaketa

ekitaldia; egun horretatik martxoaren 9ra arte, saria jaso duten lanak zein epaimahaiak aukeratutako beste hainbat erakusketan ipiniko dituzte.

Iaz 42 argazkizalek aurkeztu zituzten euren lanak lehiaketara, eta Ignacio Conde Martín abadiñarrarena izan zen irabazle.

Iaz 42 argazki aurkeztu zituzten eta Ignacio Conde izan zen irabazlea

Ezkilalore
Fruituak eta barazkiak

Arlozabal, 2 48220 Abadiño (Muntsaratz) - 626 15 68 17

ELEKTRIZITATEA

BIOK

94 681 78 23
Fax: 94 681 85 34
biok-j@euskaltel.net
48220 ABADIÑO

salmenta, konponketa eta boutiquea

MOTOS TABIRA

kontseziario ofiziala

BENELL - SCORPA - AJP
KEEWAY - PIAGGIO

Pol. Arzobia, 10-b pabilioia 48220 MATIENA-Abadiño

94 681 4068
www.motostabira.com

Indegia

elebe

Iturritxo 2 behea • 48220 Abadiño
Tel.: 94 655 01 05

BEATRIZ CASADO

ESTETIKA
MASAJEAK
OSTEOPATIA

Iturritxo 2 behea (Elebe ileapaindegia)
Tel.: 696 838 735



Ipar Euskal Herriko pilotarien bisita Tornosolon

Otsailaren 12an jokatu dituzte bi mailetako finalak, goizeko 11:00etatik aurrera



Pilotak hartuko du San Blas jaietako kirol-egitarauko protagonismo handienetakoa. Zita ugari ezartzeaz gainera, bertan parte hartuko duten pilotarien mailak jaialdi erakargarriak iragaritzen ditu. Datorren egunean hasiko da txapelketa, eta otsailaren 12an jokatuko dituzte finalak, Tornosolo trinketean goizeko 11:00etan.

Lehen Maila Berezian Durangaldeko pilotariak txapela janzen saiatuko dira. Uriarte-Antxia eta Gonzalez-Ugarte bikoteek Ipar Euskal Herriko aurkariak izango dituzte finalerdietan; horien izenak ez dituzte eman oraindino. Erronka berezia, Bidasoaz bestaldeko pilotariak trinketean duten esperientzia kontutan hartuta. Uriarte eta Antxiak otsailaren 5ean jokatu dute, 11:00etan, eta Gonzalez eta Ugartek 10ean, 19:00etan.

Datorren egunean hasiko da pilota txapelketa, Tornosolo trinketean

Lehen Mailako adarrean, bikote hauek eman dute izena: Gordon-Aspuru, Arabio-Etxebarria, Gandiaga-Larrazabal eta Barandiaran-Martin. Lauen arteko onenek finalean egingo dute topo Ipar Euskal Herriko etorriko den bikote batez; zuzenean sailkatuta, bertan itxarongo diete.

Errekorraren bila

San Blas egunez beste zita esanguratsu bat ipini dute kirol arloan. Izan ere, herri-kirol erakustaldiaren baitan, Jose Ramon Iurretagoiena "Izeta II.a" eta bere seme Odei "Izeta IV.a" harri-jasotzaile gipuzkoarrak seigarren errekorra ezartzen saiatuko dira, Abadiñon, otsailaren 3an. Horretarako, 125 kiloko harri laukizuzena 125 bider altxatzen ahaleginduko dira. "Izeta II.a"-k nabarmendu du "oso giro ona" sortzen dela Abadiñoko azokan, eta jaia "oso leku egokia" iruditu zaio errekor berria ezartzeko.

Otsailaren 4an eskolarteko krosa burutuko dute Traña-Matienan zehar, Bizkaiko txapelketaren baitan. Arratsaldean, oster, V. Eskola Igeriketa Liga antolatuko du Astola Igeriketa kirol taldeak, udal instalazioetan.

Arkada Socialen punk-rocka zapatuan

Itziarren Semeak eta Kruders bertan izango dira 4an; erromeria ekarriko du Lotxok

San Blas egunaren biharamunerako rock kontzertua programatu dute Abadiñoko Txosnagunearan.

Kruders herritarrek zabalduko dute jaialdia, eta itxi, berriz, Mungiako Itziarren Semeak taldeak. Kartelburu Arkada Social talde arrasatearra izango da.

1997an sortu zen Arkada Social Arrasaten, koadrila bereko bost laguneren asmoetatik. Gerora hirukote izatera pasatu ziren, eta 2006an esan zuten agur. Azken boladan, oster, berriro ere eszena musikalean baneratu eta zaleen nahia bete dute punk-rock biziagaz bueltatuz. Euskal Herriko bozgorailu

askotatik irtendakoak dira *Zer egin, Nunca morirás* edo *Tabernan sartuta* abestiak.

Lotxo, otsailaren 3an

Rocka alde batera utzirik, aipatzekoa da erromeria doinuak ekarriko dituela Lotxok San Blas egunean, 18:00etan. Bestalde, Done Zezili abesbatzak Santa Ageda koplak kantatuko ditu hilaren 4an.

Eszena musikalera itzuli da Arkada Social





SAN BLAS 2012

- menu berezia (20euro, 10euro umeak)
- (1) baba gorriak, entsalada edo hostore pastela kantarelus eta perretxikoz betea
- (2) entrekota, bakailaoa edo idi-isatsa gisatuta
- *umeena: makarroiak eta solomo edo paparra patatekin
- * edaria eta postrea barne (bez-a barne)
- ludoteka zerbitzua egun osoan zehar
- WALHAUS garagardo promozioa (opari zozketekin)

Muntsaratz (Abadiño) www.xirimirijatetxea.com



Z E L E T A B E
A u z o a P r o m o c i o n e s S . A .



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Zelan prestatu duzue Sanblasetako kontzertua?

Laster kaleratuko dugun disko berriko kantak eta Brigada Criminal, Cock Sparrer, Oxymoron eta Special Crew taldeen bertsioak joko ditugu, besteak beste. Gogo handiz gagoz kontzerturako; gainera, guretzat erreferentzia izan da Arcada Social: orain urte batzuk *Greatest Hits* gauan jo genuen Arcada Socialen kanta bat.

Diskoa prest daukazue ia, ezta?

Udan grabatu genuen diskoa, baina baxuaren grabazioagaz arazoak izan ditugu, eta berriro grabatu behar izan dugu. Atzeratu egin du horrek dena. Hemendik hiru hilera edo itxaroten dugu prest edukitzea, diseinua ere egin da daukagu. Diskoa masterizatzea falta da, eta kopiak egitea.

“Hiru hile barru itxaroten dugu diskoa edukitzea; masterizatzea eta kopiak egitea falta da”

Zelan sortu zaizue diskoa kaleratzeko aukera?

Gure kontura aterako dugu: diru gutxiagaz. Iditu Records-en egin genuen grabazioa; asteburu bitan, ahalik eta arinen. Egia esan denbora gutxiegi eduki dugu grabazioa egiteko.

Hasierako kantak ere jaso dituzue disko honetan?

Bederatzi kanta dira, gehienak iaz egindakoak, baina badago taldearen hasieretan egindako besteren bat. Azkeneko urte bietako lanaren emaitza da diskoa.

Ezagutzen ez zaituzten bati zer esango zeniokete zuen musikaz?

Punk-rocka da, baina gure ikutua ere badaukana. Uste dugu disko honetan gure estiloa definitzea lortu dugula. Geu gara erroan, baina disko hau askoz landuagoa dago maketa baino. Bost urtean aurrera egin dugu, eta igarri egin da hori diskoan.

“Maketakoekin alderatuta, indar handiagoa daukate kanta berriek”

Otsailaren 4an, Sanblas jaietako txosnagunean, Arcada Social eta Itziarren Semeak taldeen aurretik joko dute 19 eta 23 urte bitarteko **Kruders** taldekoek kontzertua. Orain lau urte, Mañariko maketa lehiaketa irabazita egin zuten lehenengo grabazioa. *Vivir moriendo* izeneko disko berria maiatzerako kalean izatea itxaroten dute



X.Gordo

Zer dauka disko honek maketa hark ez zeukanik?

Indar handia dauka, batetik, eta geu ere taldeago gara, zelanbait. Letrak ere asko gehiago sakondu ditugu disko honetarako.

Kontzertuetarako gogotsu?

Bai! Diskoa kaleratu arte ez genuela kontzerturik eskainiko esan genuen, baina berandutzen dabil, eta ez dugu gehiago itxaron gura.

“Geu gara erroan, baina disko hau askoz landuago dago maketa baino: aldea igartzen da”

Oraingoz, Sanblasetan eta Oviadoko etxe okupa batean joko dugu.

Taldea bera ere aldatu egingo zen bost urteotan...

Askoz hobeto gabilta orain: jotzen askoz gehiago disfrutatzen dugu, ikasteko ere asko daukagun arren... Diskoa ateratzea pentsatu aurretik, geldirik egon ginen denboraldi bat pasatu genuen, txarto geunden talde moduan. Kontzertuak

prestatzeko entseatzin genuen, baina ganora barik genbiltzan.

Zer helburuzekin zenioten diskoa prestatzeari?

Kanta zaharrekin aspertuta geunden, eta aurrera egitea erabaki genuen. Erronka izan da: Diskoa grabatzeko data bat ipini, eta betetzin saiatu gara. ■ I. Esteban

> Bideoa: www.anboto.org

Lagunei, heriotzari, minbiziari... buruzko punka

Orain hiru-lau urte kaleratu zuten maketaren ondoren, lehenengo diskoko kantetarako sortu dituzten letrei buruz, “ez dira betiko gaiak” diote Kruders boskote abadiñarrekokideek. “Lagunei buruz asko”, heriotzari buruz, edota “Durangaldean tasa oso altua daukan minbiziari buruz” idatzi dute, esate baterako.

Bi aurpegiko jendea deitzen den kantaren letrak “zapatu gau askotan belarria berotu eta hurrengo egunean agurra ukatzen duzu” dio, adibidez. Entzule bakoitzak bere erara interpretatuko duen arren, orain urte batzuk El Correo egunkariari elkarrizketa eskaini izanagatik jende batek hartu zuen jarrerari eran-

tzun guran idatzi zuten. “Asko kritikatu gintuzten”, diote.

Letretarako ideiak denon artean lantzen dituztela azaldu digute, eta abeslariak idazten

Minbiziari dihardute, adibidez, “Durangaldean tasa oso altua daukalako”

dituelagehienetan. Kontatu digutenez, estudioan bertan idatzi zuten diskoko letretako bat: “Erdi eginda geneukan, baina oso trabatuta geunden kanta horregaz,



eta grabatzeko hiru ordu falta zirela prestatu genuen”. Euskaraz hasten da kanta, baina estribilo bat ingelesez eta gazteleraz da.

Morir viviendo izenburuagaz kaleratuko duten diskoa ahalik eta merkeen saldu gura dute: euren poltsikotik ordaindu duten gastua parekatzeko.

Oviadora lege, atzerrira kontzertuak eskaintzera joatea gura lukete

Oviadora doazen moduan, Euskal Herritik kanpora beste leku batzuetara euren doinuak zuzenean eskaintzera joatea gus-tatuko litzaiekeela esan digute: Berlin aipatu dute, esaterako.

EDERTASUN GIDA

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa
Nerea Mallabiabarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango



- Ana Camarero
- Estetika zentroa dauka Durango

Manikura permanentea


Manikura berezia eskaintzen hasi zarete zuenean. Zer da, zehazki? Atzazkal naturala babesten duen manikura da. Inoiz ez da atzazkalaren oinarria limatzen; ez prestakuntzan ez ezabaketan. Manikura kendu arte, esmaltea distiratsu geratzen da.

Zelakoak dira aipatu dituzun tratamendu horiek?

Lehenik eta behin atzazkala pretatzen da, kutikulak erretiratu. Geruza fina ematen da lehenengo, oinarrizkoa dena. Horren ondoren, izpi ultramoreen lanparara doaz atzamarrak, ontzera. Izan ere, metodo honek ez du lehortzeko denborarik behar. Gero, koloregeruza aplikatzen da, bezeroak aukeratzen duen koloreagaz. Lanparan sartu eta berriro kolorea ematen da. Azkeneko geruza distira eta iraunkortasuna lortzeko ematen da. Lanparatik pasatu berriro, eta amaitzeko alkohol isopropilikoa gaineratzen zaio. Manikura eginda dago eta bezeroak atzazkala ukitu dezake, siku dago-eta.

Zer abantaila ditu, beraz?

Batez ere, ez dela atzazkalaren oinarria limatzen, beste hainbat metodogaz alderatuta. Bestalde, distira eta bateratasun handiz irauten du atzazkalak, ematen den egunetik kentzen deneraino. Esmaltea ez da arrakalaten, eta irudi hobea ematen du. Bi aste iraungo digu, gutxi gora-behera.



ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

astelehenerik
asteazkenera
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 beheka • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

@anbotokirola

KIROLAK >

Urte biribilari errematea ematera

Belgikan, Munduko Txapelketa lehiatuko du etzi Egoitz Murgoiok; nazioartean ere protagonista izan gura du



Abadiñarrak 13 bider jaso ditu besoak aurtengo denboraldian helmugara sartzekoan.

Domekan ziklo-kroseko Munduko Txapelketan parte hartuko du Hirumet taldeko Egoitz Murgoiok. Etxeko lanak nota altuarekin gaudituta, masterraren bila doa Koksijdera.

Domekako lasterketari begira, baditu itxaropentsu egoteko arrazoiak. Aurten Munduko Kopan lortu duen posturik onena (16. postua), etziko zirkuitu berean lortu zuen, iazko urriaren amaieran. Ibilbidea aurrez ezagutzeak lasterketa prestatzeko orduan abantailak ditu: "Badakit zer aurkituko dudun, eta hementxo entrenamenduak horren ar-

bera antolatu ditut". Gaurko eta biharko egunak prestatutakoa praktikan jartzeko baliatuko ditu, eguenetik Belgikan dago-eta. "Lehen hamabostetan sailkatu naitekeela uste dut eta hamar onenen artera hurreratu", dio.

Irteeran, urtean zehar pilatutako puntuen arabera, ilaratan banatzen dira txirindulariak. Murgoiok hiru edo laugarren ilaran irtingo da; beste behin, aurtentz nabarmen hobetu duen alderdia, irteeretako trebezia, zukutzen saiatu beharko du.

Gertatzen dena gertatzen dela, marea urdinak bertatik ber-

tara jarraituko ditu abadiñarraren ibilerak. Murgoiok nora, zaleak hara ibili dira aurten. Esaterako, Espainiako Txapelketan autobus bete lagun joan zen Gandiara: "Ezin naiz kexatu; oso esker oneko nago. Lagunak, zaleak, taldeko buruak... beti ondoan izan ditut. Ea asteburu honetan

Lehen hamarren artean sartzeko borrokan ibili gura du abadiñarrak

eman didaten guztia postu on bategaz bueltatzen dieran".

Denboraldia aztergai

Aurtengo Murgoioren denboraldian orban niminoak baino ez dira ageri garaipenez betetako ozeanoan. Munduko Kopako pare bat lasterketetan jausi egin da; ofizioaren arriskuak dira. Estatuan zein Euskal Herrian lehiatutako 14 lasterketatik 13 irabazi ditu, Espainiako Txapelketan bigarren geratu zelarik, Isaac Suarezren atzetik. Arantza txikia? Bai, baina ez irabazi ezin eragindakoa, desegokia irizten dion zirkuituak baino: "Zirkuitu laua zen, teknikoki zein fisikoki konplikaziorik bakoa. Niretzat ez zen egokia, baina, oro har, ziklo-krosserako ere desegokia zela uste dut". Bestelakoan, Espainiako Kopagaz eta Euska-

diko Txapelketagaz loditu du aurtengo garaipenen zakua, eta dena ematea eskatzen duten zirkuituetan erakutsi duen nagusitasuna goitik beherakoa izan da.

Apirilean Marrakexen

Apiril amaieran abentura berri bat probatuko du Murgoiok. Milton Ramos eta Israel Nuñezekin taldea osatuz, Marokoko Marrakex herrian hasiko den mountain-bike Raidean ariko da. Bost etapako lasterketa da, Rally Dakarraren antzekoa, baina bizikletan: "Esperientzia berria da; ilusioz prestatuko dut". Kataluniako hainbat eragilek sortu dute taldea eta Roberto Erasen hegemonia (azken hiru aldietako irabazlea) hausten saiaturiko dira. ■ J. Derteano

> Bideoa: www.anboto.org

Durangaldeko ordezkarien ziklo-kros denboraldia >

Emakumeen elite maila

- 1- Naia Alzola53
- 2- Olatz Odriozola50
- 3- Zalao Trevilla26
(Durangaldeko Beste Alde)
- 4- Maite Murgia26
- 5- Amaia Martioda ...17
(Bizkaia-Durango taldea)

Mutilen kadete maila

- 1- Patxi Aldanondo ..154
- 2- Iker Alberdi126
- 3- Gotzon Martin120
- 4- Daniel Mayora77
- 5- Jon Munitxa70
(Durangaldeko Beste Alde)

Mutilen gazte maila

- 1- Jonathan Bilbao84
- 2- Ander Ibarburen75
- 3- Xabier Goikoetxea...73
- 4- Alex Aranburu59
- ...
- 8- Aritz Hernandez....43
(Durangaldeko Beste Alde)

Gizonen 23 urtez azpikoa

- 1- Jonathan Lastra ...66
(Hirumet taldea)
- 2- Iñigo Gomez63
- 3- Jon Gomez61
- 4- David Hidalgo60
- 5- Peio Goikoetxea....50

Gizonen elitea

- 1- Aitor Hernandez.....86
- 2- Aketza Peña63
- 3- Egoitz Murgoiok ...48
(Hirumet taldea)
- 4- Iñaki Lejarreta44
(Orbea taldea)

Gizonen Master 30

- 1- J. Jose Romero48
- ...
- 4- Lander Peña19
(Elorrioko Banan-Banan taldea)

Gizonen Master 50-60

- 1- J.A.Mazaira42
- ...
- 4- J.M.Alzola16
(Elorrioko Banan-Banan taldea)



Murgoiok hurretik sentitu ditu zale eta lagunaren animoak.

Euskadiko arkulari onenen arteko lehia Durangon

Arkularien Euskadiko Ligako laugarren jardunaldia Durangoko Landako kiroldegian jokatuko dute, zapatu goizean, 65 lehiakidek



Adinaren zein arku motaren arabera maila batean edo bestean jardungo dute arkulariek.

Aurten ere Euskadiko Arkularien Ligako jardunaldi bat hartuko du Durangok. Zapata goizean izango da, 11:30ean hasita, eta 11 klubetako 65 arkulari inguru lehiatuko dira hainbat mailatan. Durangoko Arkulari Taldeko ordezkariak ere parte hartuko dute, eta Elisabeth Luengo emakumeen senior B mailako txapelketa irabazteko faborito argia da.

Arkulariak irizpide biren arabera taldetan lehiatuko dira. Batetik, adinaren arabera benjaminetik gazte mailara bitarteko hainbat arkularik jardungo dute; bestetik, arku motaren

Elisabeth Luengo liga irabazteko aukera handiak ditu aurten ere

arabera ere (kurbatua, olinpikoa edo mekanikoa) modalitate batean edo bestean ibiliko dira.

Arkularien Liga urrian hasi zuten eta martxoara arte iraungo du. Orain arte hiru jardunaldi jokatu dituzte, eta Durangokoaren ondoren beste bi geratuko dira liga amaitzeko: Amorebieta-Etxanokoa eta Etxebarrikoa.

Eskualdeko arkulariak

Durangoko Arkulari Taldeko hainbat kide sailkapenetako lehenengo postuetan dabilta. Emakumeen senior B mailan, esaterako, Elisabeth Luengo lider dago eta puntuetan bibidertu egiten du bigarren sailkatua. Beraz, oker handirik ezean, bera izango da beste behin Euskadiko txapeldun.

Nagusietan ez eze, gazte-txoetan ere nabarmentzeko izen bi ditu Durangoko taldeak. Nesken benjamin mailan Naia Olabe eta mutilen kimuetan Danel Ugaldea sailkapeneko lehenengo postuan daude. ■ J.D.

Euskadi-Nafarroa Triatloi Zirkuitua Bizkarrarentzat

Denboraldia irailean amaitu zen arren, asteon argitaratu du triatloi federazioak Euskadi-Nafarroa Triatloi Zirkuituko sailkapen ofiziala, eta Abadiñoko Laubide-

ta triatloi taldeko Gorka Bizkarra izan da txapeldun. Otsailaren 4an Donostiako Amara Hotelan egingo duten jaialdian jasoko du irabazleari dagokion garaiku-

rra. Oso pozik dago Gorka Bizkarra. Adierazi duenez, orain lau urte triatloien munduan murgildu zenetik bere buruari ipinitako helburua bete du Euskadi-Nafarroa Triatloi Zirkuitua irabazita.

Emakumeetan Laubideta triatloi taldeko Urbarri Eguia izan da eskualdeko ordezkari onena 15. tokian. ■ J.D.

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Denboraldi erdiko gogoetak

Badoa urtarrila aurrera, eta denboraldiak ere bere erdialdea bete du; komeni da gogoratzea momentu honetan jokatzeko direla gero denboraldi bukatu talde bakoitzak izango dituen aukerak.

Gescrap Bizkaia Bilbao Basket Kopatik kanpo geratu da, nahiz eta azkeneko sprint benetan handia egin duten. Euren erruz ez dira sailkatu, nire ustez. Irregularitasun handia erakutsi dute, eta kanpoan ez irabazteak eragin du hori guztia. Taldeari asko kostatu zaio bi txapelketatan topera egotea, eta Euroligako esfortzua ligan ordaindu dute. Orain, berriro euren maila hartzen ari dira, eta play-offetara begira taldea bere maila emateko prest egongo dela esan daiteke.

Hurbilago begiratu ere irregularitasuna da nagusi: Tabirakoko mutilen taldeak bere eskuetan dauka A-1ean sailkatzea. Talde asko daude zazpi garaipenekin, baina euren arteko norgehiagoketan erabakiko da sailkapena. A-1ean egoteko taldea dauka, eta zorte apur batekin lortuko dute helburua. A-2an sartuz gero... ahalik eta arinen ekidin behar jaitsierako postuak. Neskek, ordea, goiko postuetatik borrokatzen egon ondoren, azkeneko porrotekin atzera egin dute sailkapenean. Bigarren itzuli ona eginez gero, goiko postuetan amaitzeko aukerak dituzte.

Nire Zornotzak irregularitasuna du nagusi. Gaur itzel eta bihar negargarri, edozeini irabazteko gai da. Ia bigarren itzulian, talde-lanean, erregularitasuna berreskuratu eta gorantz egiten dugun. Seguru baietz! Bitartean, zorte on denoi!

Adituarentxokoa

Alkuaz aurrelaria ekarri du Kulturalak Baskoniatik, denboraldia amaitu arte



Durangoko Kulturalak aurrealdea indartu du Baskoniatik Joseba Alkuaz aurrelaria ekarrita. Bilboko Athletic-egaz denboraldia amaitu arte lotu dute akordioa. Alkuazek 19 urte ditu eta iruinsemea da. Athletic-en ibili zen, haurren kategoriatik gazteen mailara arte (2005-2010). Iazko denboraldian eta aurtengoan Basauriko Baskonia taldean aritu da. ■ J.D.

A. Urreta podologo

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podologia 188. Elkargokidea

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

urutiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Urribe
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

'Balcón de Bizkaia' Rallya berriro ere Euskadiko Rally Txapelketan

Urte biko parentesiaren ondoren, 2012ko ekainean berreskuratu egingo dute rally hori



Durangalde Racing elkarteak zortzi lasterketen antolakuntza lanean ere parte hartuko du.

J oan zen barikuan, Durangaldeko Racing elkarteak Pinondon burututako batzarraren 2012rako prestatuta dituzten asmoak iragarri zituen. Aurten 'Balcón de Bizkaia' rallya berreskuratuko dutela adierazi

Euskadiko lizentziaren gainera zehaztasunak ere eman dituzte

zuten. 2009an antolatu zuten azkenengoz eta aurten ekainaren 23an izango da rally horren laugarren aldia. 2009an ez ezik, 2006an eta 2007an ere lehiatu zen. Bestalde, iaz aurreratu zuten, Urkiolako Igoera oraingoz

bertan behera uztea erabaki dute. Rally horrez gainera, aurten zortzi lasterketa antolatzen parte hartuko du: rallysprintean lur gainera Zeberio-Arteakoa; igoeretan Zeberio eta Dimakoak; slalometan Dima, Igorre, Zeberio eta Ugarama-Dimakoak, eta, erakustaldietan Zornotzakoa.

Lizentziak eta Kopa berriak
Aurkezpen batzarrerara Angel Gurrutxaga Euskadiko Automobilismo Federazioko lehendakaria ere etorri zen. Martxoan hasiko den denboraldiko lasterketa batzuek hiru kopa berritarako puntuak ere banatuko dituztela azaldu zuen. Kopa Fiat Punto (abarch preparaziokoa), E30 modeloko BMWak (2.500 zentimetro kubiko eta atzeko trakzio-dunak) eta kopa irekia (1.600 zentimetro kubikora arteko).

Bestalde, aurtendik aurrera euskal lizentziak atera behar dira, Euskadiko Automobilismo Federazioak kudeatuko dituenak. Lizentzia horregaz Euskal Autonomia Erkidegoan, Kantabrian, Galizian eta Valentzian lehiatu ahal da. Handik kanpora lehiatzeko, baina, Espainiako lizentzia beharko da. Gurrutxagak adierazi zuenez, lizentziak Errioxarako eta Nafarroarako ere balio dezan negoziatzen dabilta. ■ J.D.

Bi bikote indartsuenen pare dabilta Berasaluze eta Albisu

Olaizola eta Beroizen kontrako lehia bakarrik galdu dute; etzi Titin III-Merino dituzte arerio

Binakako txapelketako sailkapenaren buruan Olaizola-Beroiz eta Irujo-Barriola bikoteak egotea ez da sorpresa, baina ligako oilarre hirugarren bikote bat batu zaie lehia horretan. Berasaluze VIII.ak eta Albisuk bost partidatik lau irabazi dituzte. Irujok eta Barriolak legez, Olaizola eta Beroizen kontrako partida bakarrik galdu dute. Hain zuzen ere,

orain arte partida bakarra galdu duten bikote bi horiek otsaileko lehenengo asteburuan neurtuko dituzte indarrak.

Bitartean, domekan, seigarren jardunaldiari dagokion partida jokatu dute berriztarrak eta ataundarrak Titin III.a eta Merino II.aren aurka. Norghegiak hori Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu dute. ■ J.D.

Tabirakoko kadeteak eta gazteak Lauko Finalean

Irabaziz gero, lehenengo faseko bost talde onenekin sailkatuko dira A-1 faserako

Asteburu honetan Orioko Karela kiroledegian jokatu dituzte Lauko Finalak kadete eta gazte mailetan, neskek zein mutilak. Tabirako nesken kategoria bietan heldu da Lauko Finalera.

Txutxi Paredesek eta Olatz Perezek zuzendutako gazteen taldeak Easo A taldearen kontrako jokatu du zapatuko lehen finalerdia. Aurrera eginez gero,

Olabide eta Cárnicas San Marcial taldeen arteko irabazlearen aurka jokatu du domekan.

Iskander de Dios, Urko Zamakona eta Imanol Ardanazak gidatutako kadeteen taldeak Zaratzen kontra lehiatuko du finalerako pasea zapatuan; finalean San Viator-Take lehiako irabazlea aurkituko luke domekan. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Elgolbar
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Elorrio - Bermeo
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden
GOREN MAILA
Berriz - Lolu
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburun
Iurretako - Basurto
Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelain
BIGARREN ERREGIONALA
Abadiño - Lekeltio B
Zapatuan, 16:00etan, Astolan
HIRUGARREN ERREGIONALA
Ezkurdi - Ermua B
Zapatuan, 18:00etan,
Aripausuetan
Extremeno - La Merced
Domekan, 17:30ean, Tabiran
Zaldia B - Salesianos
Zapatuan, 16:30ean,
Solobarrian

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA (2. fasea)
Durango Ilarduya B - Hospitalet
Domekan, 12:00etan,
Aripausuetan

SASKIBALOIA
LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako - Obenasa
Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroledegian
LEHENENGO ERREGIONAL
BEREZIA
Tabirako - La Salle
Zapatuan, 16:45ean,
Landako kiroledegian
BIGARREN ERREGIONALA
Julza Zaldia - Mungia
Zapatuan, 16:30ean,
Landako kiroledegian

ARETO FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Elorrioko - Buruntza
Zapatuan, 18:00etan,
Elorrioko udal kiroledegian
EUSKAL LIGA
Sasikoa - Kukulaga
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroledegian
GOREN MAILA
Abadiño - Lagun - Ibaizabal
Zapatuan, 17:15ean,
Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
Dantxari - Zuentzat
Zapatuan, 17:00etan, lurretan,
Lanbide Heziketa Institutuan
Elorrioko B - Sapuberri
Domekan, 12:00etan,
Elorrioko kiroledegian
EMAKUMEEN LIGA
Sasikoa - Kukuyaga
Domekan, 10:30ean,
Landakon kiroledegian

Oraindik salgai,
ohiko lekuetan

Durangaldeko egutegia
2012



150.000 euro aurreztu zituen iaz Durangoko Udalak argindarrean

**223 bonbila aldatu zituzten
2011n, eta argindarraren
faktura % 5,5 bajatzea lortu
dute urte osoan zehar**

**2006tik hona 60 semaforo
kendu dituzte, eta laster
beste 14 kenduko dituztela
aurreratu dute**

**Argiteria aldatzeko 550.000 euro inbertitu ditu udalak
EEEren laguntzagaz; argindarraren kontsumoa % 60 jaitsi da**

2011n argindarra aurrezteko 223 bonbila aldatu ditu Durangoko Udalak. Kontsumo txikiko teknologiei esker –tartean hainbat mikroLED erako bonbilak ipini dituzte, adibidez–, % 60 murriztu da argindarraren kontsumoa. Dirutan, iaztik hona %5,5 murriztu da udalaren argindarraren faktura; 460.000 eurokoa izatetik, 306.000 eurokoa izatera igaro da.

Azken hiru urteotako fakturak kontutan hartuta, % 25 murriztu da argindarraren faktura; 2009an baino 200.000 euro gutxiago ordaindu du udalak argindarrean 2011n. Azken fakturan, zehazki, 2010etik 2011ra 154.000 euro aurreztu dira.

Azken hiru urte hauetan, besteak beste, Askatasun etorbidean, Intxaurren, Tabiran, Pinondo parkean eta Andra

Mariko elizpean aldatu dute argiteria.

EEEren laguntza

Argiteria zaharra berriagatik aldatzeko beharrek 550.000 euroko kostua izan dute. Durangoko Udalak 170.000 euro inbertitu ditu behar horietan, eta gainerakoa Energiaren Euskal Erakundeak –EEEk– lagundu du diruz.

Inbertitutako dirua berreskuratzeko urte bi eta erdi beharoko lituzke Durangoko Udalak, baina udaletik nabarmendu dutenez, EEEren diru-laguntzari eskerrak urtebete baino gutxiagoan berreskuratzeko du inbertitutakoa.

Argia, kontsumoaren % 55

Udaleko energia kontsumo orokorraren % 55 argindarrari

dagokiona da. Argiteria aldatzeaz gainera, Tokiko Agenda 21ean eta aldaketa klimatikoaren kontrako planean zehaztutako hainbat ekintza burutu dira energia kontsumoa murrizteko: esaterako, udal eraikinetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak egin dituzte, eta semaforo ugari kendu dituzte.

Semaforo gutxiago

Agenda 21eko planari jarraituta, 2006tik hona 60 semaforo kendu ditu Durangoko Udalak. Abenduan, esaterako, Ermodo eta Frai Juan Zumarraga kaleen arteko semaforoak kendu egin zituzten.

Maria Jose Balier Hirigintza Batzordeko buruak aurreratu duenez, laster beste 14 semaforo kenduko dituzte Durangoko herrigunean.

Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

AGENDA >

> ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 28an, Berrizen

'LA LECHUGA'

Elkarren artean txarto konpontzen diren familia bat koman bederatziz urte daramatzen aitaren urtebetzea ospatzeko batuko da antzeztanren hasieran. Familia batu eta zoriontsuari, gaixotasun terminalari, zahartzaroari eta heriotzari buruz umore beltzez dihardu *La lechuga* lanak. Gorka Aginagalde, Galder Perez eta Gurutze Beitia dira antzezteetako batzuk.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » Urtarrilaren 28an, Glu Glu antzerki taldearen **La lechuga** obra, 20:00etan, Kultur Etxean.
- » Otsailaren 2an, Markeliñeren antzerki taldearen **Hareazko ipuinak**, 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- » Urtarrilaren 29an, Histrión Teatro taldearen **Traición**, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.
- » Otsailaren 3an, Durangoko La Papa Producciones taldearen **Las mariposas del estómago no han muerto**, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

- » Urtarrilaren 27an, Tony la Sal-en 4 urtetik gorakoentzako **Ipuin lapurra** txontxongilo antzezpena, 17:00etan, liburutegian.
- » Urtarrilaren 27an, Histrión Teatro taldearen **Traición** obra, 22:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

- » Urtarrilaren 28an, Histrión Teatro taldearen **Traición**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ERAKUSKETA

ELORRIO

- » Urtarrilaren 13tik otsailaren 1era arte, Asier Sanz margolariaren **Bilbo, labirinto magikoa** erakusketa, Iturri Kultur Etxean.

IRTEERA

IURRETA

- » Otsailaren 6ra arte eman daiteke izena, **Kimuak** elkarteak otsailaren 10etik 12ra **Elurretara (Izabara)** joateko antolatu duen irteeran parte hartzeko. Ibarretxe kultur etxean edo kimuak@kimuak-elkartea.com helbidean eman daiteke izena.

JAIK

ABADIÑO (San Blas)

- » Urtarrilaren 27an, **Bertso afaria** Gaztetxean: **Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi**. Ondoren, **Koipelustre** koplari jarrien txapelketako sari banaketa.
- » Urtarrilaren 29an, **Abadiño auzorik auzo** ibilaldia, 09:00etan. Gerediagako baselizatik abiatuta probalekuraino.
- » Otsailaren 2an, **San Blas 2012 pilota txapelketako final-laurdena eskuz**, 19:00etan, Tornosolo trinketean.
- » Otsailaren 3an, (**San Blas eguna**). Herriko txistularien kalejira, 09:00etan. Umeentzako tailerrak, 10:30ean, Txanporta kultur etxeko arkupean. **Meza nagusia**, 11:00etan, San Trokaz elizan. **Bertsolariak**, 12:00etan, Ferialeku plazan: Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu. **Herri kirolak**, 12:30ean, probalekuan; ondoren, nekazal sari banaketa. **Idi-probak**, 17:00etan. Lotxo taldeagaz **erromeria**, 18:00etan, Ferialeku plazan. **Idi probak**, 22:00etan.

KONTALARIA

IURRETA

- » Urtarrilaren 27an, **Maite Arreseren** ipuin kontalaritza saioa, (3 eta 4 urtekoentzako 17:30ean; eta 18:00etan, 5 urtetik gorakoentzat) Bibliotekan.
- » Urtarrilaren 27an, Alicanteko **Pablo Albo** ipuin kontalaritza saioa, 20:00etan, Bibliotekan.

MUSIKA

ABADIÑO

- » Urtarrilaren 28an, **El lobo de armañon** eta **Primeros auxilios**, 22:30ean, Gaztetxean.

ZORNOTZA

- » Otsailaren 3an, **Jabier Muguruza Bikote bat** diskoa aurkezten, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



Urtarrilaren 27, 28, eta 29an, Durangaldean

'TRAICION'

Harold Pinter literaturako Nobel saridunak 1978an idatzirik obraren Histrión Teatro taldearen moldaketa, Elorrioko Arriolan, Durangoko San Agustinen eta Zornotza Aretoan izango dugu, gaur, bihar, eta etzi, hurrenez hurren. Elkar traizionatzen duten hiru pertsonaia dira protagonista: azkenerako euren burua ere saltzen dutenak.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

J. Edgar

Zuzendaria: Clint Eastwood

barikua 27: 19:00/22:00

zapatua 28: 19:30/22:30

domeka 29: 19:30/22:30

astelehena 30: 19:00/22:00

martitzena 31: 20:00

Umeen zinema

La gran aventura de winter

Zuzendariak: C. Martin Smith

zapatua 28: 17:00

domeka 29: 17:00

ELORRIO

Arriola

Un método peligroso

Zuzendaria: David Cronenberg

zapatua 28: 22:30

domeka 29: 20:00

astelehena 30: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Another year

Zuzendaria: Mike Leigh

domeka 29: 20:00

astelehena 30: 20:00

Umeentzako zinea

Winx club: la aventura mágica

Zuzendaria: Iginio Straffi

domeka 29: 17:30

e t x e a
i a t
i a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **-%10 ASTELEHENGORRI**

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAL**

Astelehenetik zapatara egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA. Landako etorbidea, 4 A
- 48200 Durango. Jaletxea: 946030300

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 17:00ak arteko epea



Zorionak **Asier!** Atzo, urtarrilaren 26an, 9 urte bete zenituen. Aupa gure txapelduna! Musu eta besarkada haundi bat, etxeko guztion partez!



Zorionak **Lucia!** Gure biloba polit eta maitagarria! Urtarrilaren 21ean 4 urtetxo bete zenituen. Musu potolo bat zure amama Jovi eta aitita Joseren partez!



Zorionak **Hodei Puente Zubillaga** abadiñarrak 9 urte egingo ditu urtarrilaren 30ean. Zorionak eta musu handi bat, zure familiaren partez!



Zorionak **Jare Landak** gaur, urtarrilaren 27an, 6 urte egin ditu. Zorionak printzesa! Jarraitu beti bezain zoragarri! Musu handi bat, maite zaitugun guztion partez!



Zorionak **Unai Soletxe Trujerak** 9 urte egin zituen urtarrilaren 24an. Zorionak! Urte asko egin dituzu baina jarraitu ondo portatzen! Aupa Athletic!



4 urtetxo bete berri ditu gure marrigorringo maitagarri honek. Zorionak **Maiane!** Besarkada bat eta musu potolo pila bat, maite zaitugun guztion partez!



Zorionak **Inhar Lizundiak** 5 urte bete ditu gaur, urtarrilaren 27an. Zorionak eta musu handi bat! Aitatxo, amatxo, Eider eta etxeko guztien partez!



Zorionak **Elene Loroño Bizkarrik** 2 urtetxo bete ditu. Musu potolo bat guraso, aitita-amama, izeko-osaba eta lehengusuen partez!



Zorionak **Koldo Ugalde Igartuak** 10 urte bete ditu. Zorionak eta musu handi bat, etxekoen partez! Txokolate gozoa prestatu eta ondo ospatu!



Zorionak **Aitor Ibarria Bilbaok**, urte bi egingo ditu otsailaren 1ean. Zorionak eta musu potolo-potolo bat Aurkene eta Igorren partez!



Urtarrilaren 19an eta 27an **Uxar** eta **Igtzen** urtebetetzeak izan dira. Zorionak eta musu potolo bana, etxeko guztion partez!



Zorionak **Itziarrek** 30 urte bete zituen. Zorionak guapisima! Musu handi bat zure lagunen partez! Jarraitu beti bezain irribarretsu!



Zorionak **Lorentzo** eta **Gregorik** urtarrilaren 21ean euren urrezko ezteiak ospatu zituzten. Zorionak bikote, eta urte askotarako! Musu handi bat, familiaren eta lagunen partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

BOTIKAK >

- Barikua, 27**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
- Zapatua, 28**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
09:00-13:30
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Domeka, 29**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Astehena, 30**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Martitzena, 31**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruatorre 2C - Durango)
- Eguaztena, 1**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
- Eguena, 2**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

SOS Deiak	112
DYA	94 620 28 00
Gurutze Gorria	94 681 09 49
Osakidetza	94 600 72 00
Ertzaintza	94 466 93 00
Suhiltzaileak	112
GARRAIOAK	
Euskotren	902 54 32 10
Bizkaibus	94 448 40 80
Pesa	902 10 12 10
Continental Auto.....	945 28 64 66
TAXIAK	
Abadiño	94 681 44 70
Matiena	606 45 99 88
Durango Geltokia	94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....	94 682 00 40
J.L. Uriarte	670 40 20 02
I. Estebez	670 67 82 73
M Galeano	670 40 93 30
lurreta	94 620 15 65
Taxi auzunea.....	688 61 86 90
UDALAK	
Abadiño	94 621 55 30
Atxondo	94 682 10 09
Berriz	94 682 45 84
Durango.....	94 603 00 00

Elorrio	94 658 27 12
Garai	94 681 63 93
lurreta	94 620 12 00
Izurtza	94 681 35 48
Mallabia	943 17 14 61
Mañaria	94 681 89 98
Otxandio	945 45 00 20
Zaldibar	94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño	94 621 55 33
Berriz.....	94 682 40 36
Durango.....	94 603 00 10
Elorrio	94 682 02 18
lurreta	94 620 08 88

EGURALDIA >

3	9° BARIKUA	
5	9° ZAPATUA	
4	8° DOMEKA	
-2	9° ASTELEHENA	
4	11° MARTITZENA	

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....	0,80 euro
Tomateak.....	3 euro/kg
Porruak.....	1,80 euro/tx
Kalabaza.....	2,50 euro/kg
Azenarioak.....	1,50 euro/tx
Azelgak.....	2 euro/kg
Romaneskua.....	3 euro/kg
Indabak.....	15 euro/kg
Arrautzak.....	3,60 e/dozena
Idiazabal gazta.....	16,50 e/kg
Ogi zuria.....	3,30 euro



Endika Blanco
Ikaslea

Zer dela eta?

Iazko ekainaren hasieran, ikasturtea amaitzeko Soziolinguistika ikasgairako lan bat egin beharra neukan, eta Durangon erabiltzen den euskararen gaineko ikerketa xume bat egitea bururatu zitzaidan. Herriko administrazio, irakaskuntza, komunikabide eta erakundeetako hainbat ordezkarekin batu nintzen. Gehiengoak laguntzeko erakutsitako prestutasuna eskertzekoa izan zen; salbuespena bakarra. Apaiz bati laguntza eske hurbildu nintzaionean, aitzakiaz bete zuen ahoa: lanez lepo zebilela, elizan oso euskara gutxi egiten dela... Horregatik ez arduratzeko esan nion, nire nahia egiten den hori ezagutu eta deskribatzea zela, eta ez ezer neurtu edo inor epaitzea. Berak, ostera, ezin zidala lagundu eta beste apaizen batengana joateko erantzun zidan. Baina, han zereginik ez nuela ikusita agur esatera nindoala atera zitzaion barruko pozoia: "Además en Durango nunca se ha hablado euskera!".

"Euskal ozeanoaren barruko erdal irla ote zen gure herria?" galdera etorri zitzaidan burura lehenengo; eta Humboldt jakintsu alemaniarrek 1801ean Euskal Herrian zehar egindako bidaian bere egunerokoan jasotako idatziak gero. "Persecución del vascuence en las escuelas" esaldiarekin hasten duen pasartearen, bere lagun Astarloarekin Durangoko eskola batean ikusitakoa azaltzen du: eratzunaren sistemaren bidez, ia erdaraz ez zekiten umeek zigor kolpe itzelak jasotzen zituzten euskaraz berba egiteagatik. Beraz, zer dela eta, oraindino, errealitatea ezkututzen jarraitzeko interes hori?

"Egun txarra badaukazu, piezan islatzen da"

Ilusioz jarduten du keramika alorrean Javi Olmok; afizio honek momentu onak eta jende asko ezagutzeko aukera eman dizkiola dio

Keramika munduan esperimentatzen dabil zaldibartar hau. Astialdian lasaitasuna bilatzeko zein adierazteko darabil buztina esku artean. Herriko keramika tailerrean dihardu beharrean; baita irakasten ere. Interesdu-nak astelehen eta eguaztenez, 18:00etatik 20:00ak arte dauka atea zabalik.



Zelan sortuzitzaizun keramikan lan egiteko grina?

Txikitatik gustatu izan zait esku-langintza, eta batez ere keramika. Eskolan hartu emana izan nuen keramikagaz, eta aspaldi honetan berreskuratu egin dut. Nire arreba ere etortzen zen tailerrera, eta afizio legez hartzea pentsatu nuen; ordu libreak zer edo zertan igarotzeko modu bat da.

Zertan ipintzen duzu arreta?

Keramika esparru oso zabala da, teknika ugari dago. Ez naiz aditu bat. Raku izeneko teknika japoniarra lantzen dut, atmosfera erreduktorean eginko tenperatura n murrizketan oinarritzen dena. Nik eginko labe batetik piezak gori-gori daudela ateratzen ditut, 1.000 gradura.

Gero zerrautsetan sartu behar dira, keagaz. Estali eta ketu egiten dira piezak, formazein kolore bereziak lortzen dira horrela.

Eta orain langintza erakusten hasi zara...

Langabezian egotera, gogo handiagaz hartu dut. Iaz hainbat azokatan parte hartu nuen, Raku metodoa zuzenean erakutsiz. Zaragozatik *Domadores de fuego* keramikari topaketan parte hartzeko gonbita egin zidaten, eta jende asko ezagutu nuen. Hartu eman horien bitartez, ezagutzak elkarbanatuz eta ikasten jarraituz, hazten joan naiz.

Zer ematen dizu, pertsonalki, keramikak?

Asko asebetetzen nau. Adierazpen mota bat da: egun txarra badaukazu piezan islatzen da. Momentu oso onak eman dizkit, eta jende asko ezagutu dut; lasaitasuna ere eskaintzen dit.

Azoketan-eta, jendeak interesa agertzen al du?

Normalean bai; batez ere, zuzeneko erakustaldietan, ez dira-eta ohikoak. Prozesu bitxia da, bisuala, suagaz, keagaz... Ordu baten edo biren buruan pieza zelan pintatzen den, zelan egosten den eta azken emaitza zein den ikusi dezakezu. Jendea unean bertan margotzera ere gonbidatu izan dut.

Musikagintzan ere egiten duzu zure saiakera, entzun dudanez.

Bateria jotzen dut Gari Rock elkartean. Noisex taldean ibilitakoa naiz, baita Durangaldeko beste batzuetan ere. Orain talde berri

bat sortzen gabiltza zenbait "loria zahar" (barrez): Javi Rios MPB-koa, Itsaso Leaniz, Kuko eta ni neu. Udaberrian-edo hasiko gara kontzertuak ematen.

Artistazarela esan daiteke, beraz.

Inondik inora ere ez naiz artista kontsideratzen; artista asko dago solte. Beste barik, denbora librea igarotzeko modu bat da, kirolean dabilenaren, kakorraz-lana egiten duenaren edo ortura joaten denaren antzera. Beti gustatu izan zait eskuak lanpetuta eta errutina bat edukitzea. Hori bai, beharrean nabilenean eta jendea interesez hurreratzen denean motibazio handia sentitzen dut.

Keramika artea da, edozelan ere.

Bai. Gauza tradizional moduan hartu ohi da: etxeko tresnak, lauburuak... Keramikaren balioa, arte plastiko legez, aldarrikatu behar dela uste dut.

Zaldibartarrak tailerrera hurre-ratzera gonbidatzen dituzue.

Denbora batez ezin izan dut behar den moduan lan egin; ez dut astirik eduki beharra dela-eta. Ia geldirik egon da tailerra azken urteetan, baina Paco Sanchezegaz batera eta udal korporazio berriaren bultzadagaz tailerra eraberritu dugu. Margotu egin dugu, udalak guri utzitako liburutegi zaharreko baldak ipini... Lokala eta aktibitatea mantentzea dugu helburu, zaldibartarrak tailerrera hurre-ratzeko. Dagoeneko hasi dira batzuk ikasten, tartean gaztetxo batzuk ere bai. Lehenago Carmen Perezek ematen zituen klaseak, baina aurrekonturik ez dagoenez, oraingoan zuzenean irakasle, Pacoren laguntzagaz. Herrian egiten diren hainbat ekimenetan ere, azoka mikologikoan zein gastronomikoan, esaterako, gure ekarpena egiten hasi gara langintza ezagutzera emateko eta jendea erakartzeko asmoz.

Javi Olmo •

Zaldibartarra da, 37 urtekoa; langabezian dago

ESKAINNTZA AKADEMIKOA:

- 0-5 urte - HAUR HEZKUNTZA
- 6-11 urte - LEHEN HEZKUNTZA
- 12-16 urte - DBH
- BATXILERGOA - Ibaizabal Ikastolan
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ZERBITZUAK

- Jantokia
- 3 urtetik aurrera: zaintza zerbitzua
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikasturtean eta udan

PROIEKTU PROPIOAK

- Eleaniztasuna
- Eskola 2.0 IKASYS
- Antzerkia
- Euskaraz bizi

